

# ARRASATE

## PRESS

Arrasate 1990eko Urriak 19, 81. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



**SABIN PADILLA,**  
Medikuntza  
kirol munduan



## Konponbidearen zain

Kamioizaleak  
piketean



### HOTZ - BERO

KLIMATIZAZIOA

Kanpantorpea 2, Tfnoak: 79 70 98 eta 79 67 54

- AIRE GIROTUA
- BEROKUNTZA
- ERAUZKETA  
(Estrazioak)
- ARAZKETAK
- MANTENUA



# ONGI ETORRI ARRASATERA!



CANAL+



**A**rrasate Telebistak ongi etorriker beroena ematen die Mondragoeko etxeetan laster ikusi ahal izango diren telebista pribatuei eta aurrerantzean satelitez edo bestela etorriko direnei. ATBn ez dugu monopolioetan sinesten eta nazioartetik hizkuntza desberdinetan ailegatuko zaigun eskaintza oparoa begi onez ikusten dugu.

Baina Arrasatek bere telebista behar du, mondragoetarrak ondo jantzita egon daitezen herriko gorabeheraz. Gainontzeko telebistek, ikaragarri aberatsak izan arren, ezingo dute behar hori bete.

Horretarako gaude gu, Arrasate Telebista, zugandik hurbilen, egunez egun, zu zeu zeure herriko berrien protagonista egiten zaituena.

Horregatik, inoiz baino beharrezkoagoa duzu Arrasate Telebista, zeure herriko telebista. Badakizu non gauden: 22. kanalean.



ARRASATE TELEBISTA

# Zugandik hurbilena



# ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

## Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)  
Azoka kalea 1, 20.500 ARRASATE.  
Tfnoa: 77 05 65

## Laguntzailea:

Arrasateko Udala

## Zuzendaria:

Joxe Aranzabal

## Erredakzioa:

Beñardo Kortabarría. Arantzazu Loidi

## Publizitatea eta harpidetzak:

Josune Biteri  
Tfnoa: 77 08 15

## Maketazioa:

Goio Arana

## Erredakzio-kontseilua:

Jose Felix Diaz de Tuesta, Harry Zاراia, Iñaki Mendiguren

## Kolaboratzaileak:

Josemari Velez de Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele Zuazubiskar, Patxi Montero, Juan Martin Elexpuru, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo Markuleta, Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai, Juanito Leibar, Jerardo Elortza, Blanka Jauregi, Klarion Taldea, Joseba Vallés, Karmelo Urizarren, Iñaki Aranburu, Hankamotz, Maite Toledo, Atalaitakoan.

## Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

## Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

## Copyright:

ARRASATE PRESS

Tirada: 7.000 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta eritzien erantzunkizunik.

# Heriotzaren inguruko ohiturak

“M aritxu Kajo” jaiaren aurkezpenean, ATBn antolaturiko mahainguruan gogoratzen zitzaigun, euskaldunak jai ospakizunetan ez ezik, heriotzenekoetan ere zurrutari eman diola. Eta horrela da, zalantzarik gabe, gaurregun ohitura hori erabat itzalita baldin badago ere. Hainbat eta hainbat usadiorekin gertatu bezalaxe, heriotzaren inguruko asko zeharo ahaztuta daude gure egunotan. Kasu batzuetan, gainera, zorionez ahaztuta.

Heriotzarekiko beldur-giroan hezia naiz, lerro hauek irakurtzen ari diren asko bezala. Oker ulertutako erlijio-erritoei mundu honetatik haruntzekorako jauziaren beldurra gehitu behar zitzairen, nahaspila hartan ikara -niri behintzat bai- hezurretaraino sartzen zitzaigularik. Ez dut ahaztu ahal izango: gure etxean agure bat hil zorian zegoen eta ohiturari jarraiki auzokoen ordezkari bat osatu zen, gizaraxo hari azkeneko orduetan otoitzen bitartez laguntzeko. Artean mutil koxkorra nintzen arren, ni aukeratu ninduten nire gurasoek sendi ordezkariatzat. Hara joan nintzen, beraz, beste sei kiderekin batera eta herioaren hurbildura bere aurpegian azaltzen zuen agurearen ingurura belaunikatu ginen, nork bere eskuan argizari banaz.

Kredoari ekin eta berehalaxe agureak burua jaso eta bere begirada gureaz gurutzatu zuen, banan banan. Inork ulertu ez zuen hitz jarria esan

ondoren, heriotzaurreko egoerara erori zen berriro. Sarri etorri zait gogora irudi tetriko hura eta beti galdera berdinez lagunduta: zer adierazi nahi zigun, bizien arteik laster desagertuko zen gizon hark? Agurearen lekuan ere ipini izan naiz -suposaketetan, noski- eta nik ez nituzkeela nire arimaren aldeko erregutzan arituko zirenak onartuko iruditu zait. Otoizleen presentziak are jasangaitzago egingo lidake heriotzaurrea. Ohiturak oroitzapenetan bakarrik dirau, zorionez.

Arrasateko kanposantua aldatzekotan omen dabilta. Aldaiko lur garestietatik San Kristobaleko inguruetara eraman nahi ei dute. Ez deritzot gaizki, oraingoa txiki eta zaharkitu xamar aurkitzen da eta. Ez dakit zein asmo duten berrirako eta noiz gauzatuko den. Dena dela, joera modernoak agintzen dituen sistemak ere jarriko direlakoan nago. Horietako bat, gorpuetarako labea. Ene pentsamoldez, horixe da gaurko gizarte aurrerakoiak behar duen zerbitzurik praktikoenetako, hil ondorengo guztien artean. Garestia dela? Baliteke, baina dena iritsiko da. Ikusiko duzue nola, aseguru-etxeek eta mutualitateek -Arrasateko San Felipe Apostol, ospetsua kasu- euren produktuen katalogoetan laster publikizatzen dituzten labea erabiltzearen bikaintasun eta abantailak.

Jose Mari Velez de Mendizabal

inpresio ona



Ozaeta 1, Tfnoa: 76 27 41 BERGARA

inprimategi eta  
autoedizio  
zerbitzuak





**gili gili**

Iturriotz 9, Tfnoa: 79 94 57

**HIRE**

**Liburu eta oparidenda**

Iturriotz 4, Tfnoa 79 14 84

**BERANGO**

*Aroztegia orokorra  
sukaldeko altzariak  
kanpo eta barruko atearak*

Legarreko pabiloi industrialak  
(behea) Tfno: 79 01 92

PAPER PINTATUAK - PINTURAK

**A. ZANGITU**

Tfnoa: 79 91 82 ARRASATE  
Tfnoa: 76 19 54 BERGARA

**Hilbera  
kafetegia**

Uribarri Etorbidea  
ARRASATE

olioak, **Artea**  
lientzoak,  
akwarelak eta  
eskulanak

Ferrerias 25

**PSOEkoen adierazpenak**

**direla eta**

Urriaren 10ean, asteazkena, Arrasaten behintzat, euskara izan zen puntako gaia. PSOEkoek, Arrasateko Udalak euskararekiko duen jokabideaz, Donostian egin zituzten adierazpenek ez zuten gutxiago merezi. Esan zituzten gauzen artean bat izan da gehien harritu nauena. Honako hau esan zuten: Arrasaten, erdeldunek (euskara ez dakitenek) bizi duten egoera "humillantea" eta "kafkianoa" da. Hau irakurtzerakoan bururatu zitzaizdan lehen gauza hauxe izan zen: "hamaika gauza ikusteko jaio gara". Sozialistek aipatutako egoera hau egiazkoa da, baina, egoera hau bizi dugunok, garbi dago, euskaldunok gara. Euskaraz bizitzea erabaki dugunok bizi dugun egoera humillantea da, ezin bait dugu gure herrian euskaraz bizi, leku askotan, eta administrazio publikoaren bulego askotan ere, ez digute ulertzen eta.

Hala ere, Arrasaten behintzat, euskaldunok baditugu pozik eta baikor egoteko arrazoiak. Nahiz eta egunkarietan titular handirik ez eman eta zarata handirik ez atera, gero eta gehiago gara euskaraz bizi nahi dugunok, euskaraz bizitzen ahalegintzen garenok. Honen ondorioz, euskara arlo berrietan zabaltzen ari da, hauetariko bat bertako Udaletxea delarik. Ez, euskarak Udaletxean bizi duen egoera ez da, zoritxarrez, PSOEkoek aipatu dutena; bilera guztiak ez dira euskaraz egiten eta batzorde guztiak ez dute euskaraz funtzionatzen, baina egia da baita ere, azken urteotan aurrerapausu nabariak eman direla. Eskerrik asko Udaletxean euskararen alde lana egiten ari zaretenoi eta horrela jarraitu. Hau da bidea eta honela segitu behar dugu, presarik gabe, baina etengabe, indarrak batuz eta inor baztertu gabe, nahiz eta minoria bat honen alde ez egon, euskaraz funtzionatuko duen herria lortu behar dugu eta.

Gutun hau bukatzeko, oso egokia iruditzen zait Nafarroa Oinezan berri emateko arrakastatsua suertatu den kantaren zatitxo hau:

*Zatoz lagun gurekin ez egin*

*negarrik, euskarak ez du eta malkoen beharrik. Badakigu non gauden eta nora goazen, kanta dezagun beraz alai eta ozen.*

G.P.

**LABen zuzenketa**

Urriaren 13an zabaldu zenuten Arrasate Pressen alean, Hauteskunde Sindikalak zirela eta, LAB Sindikatuaren ikuspuntuak eskaintzen zenituzten. Baina 7garren parrafoan hitz garrantzizko bat irentsia gelditzen da eta esaldiak zentzu desberdina hartzen du. Hara nola guk igorritako txostentxoan "LABek ez du onartzen "Zerbitzu" Sindikatua SOILIK denik...", dio. Eta Arrasate Pressen "LABek ez du onartzen "Zerbitzu" Sindikatua denik". 40 Bulego baino gehiago zabaldu baditugu, "Zerbitzurik" ez eskaintzeak, kontraesan nabarian jarriko gintuen.

LABek "Zerbitzuak" ERE eskaintzen ditu, eta ez nolana hikoak.

Detailtxo hori argitzea eskertuko genizueke eta nahi duzuen arte.

LAB

**Murrukixok herriari**

Murrukixoko M.T. zera adierazi nahi die Aretxabaleta eta inguruko herritarrei:

Euskal Herriko Mendizale Federakundearekin batera, gure mendien ingurugiro arazoei buruzko lan bat egin behar dugula. Guri Atxabalta inguruko mendiei buruzko txostena egitea tokatu zaigula.

Honela bada, honako arazoetariko bat ezagutuko bazenute, guri adierazteko eskertuko genizueke:

- Pista indiskriminatuak, erosioa.
  - Abereekin problemak.
  - Motokros, trial, auto krossa eta todo terreno kotxeekin abusuak.
  - Ehiza eta arrantza.
  - Zabor pilaketak, pintadak eta zuhaitzetako inskripzioak.
  - Errekatxoak kutsaketa.
  - Sor daitekeen beste edozein arazo.
- Inork onetariko zerbait jakingo balu lehen *Correosen* lokala zegoen lekuan aurkituko gaitu.

*Murrukixoko mendizale elkarteak*



# Hizkuntzagatik diskriminatuta sentitzen zara?



**Tomas Axpe**  
(langabetua)

Alderantzizbai. Alde guztietan eskubide bera behar genuke euskaldunok ere hori exigitu ahal izateko. Pasada iruditzen zait sozialistek eskatzen dutena. Euskaraz ez dakiten edozein lekutan, jakin egin beharko lukete, eta jar dezatela itzultzaile bat establezimendu publiko guztietan.



**Karmele Etxagibel**  
(administraria)

Inolaz ere ez. Nik euskaraz egiten dut, eta neure hizkuntza da. Ez dakitenak, Euskadin daudenez, ikas dezatela hemengo hizkuntza, guk ere Espainiara joaten garenean gazteléraz egin behar izaten dugu eta ez gara diskriminatuta sentitzen.



**Aurora Soriano**  
(Etxekoandrea)

Horixe! Holako leku batera joan eta ezer ulertzen ez baduzu, ba, ez dakit. Erderaz hitz egin diezazuten nahi izaten da, ezta?




**Adolfo Arnaiz**  
(saltzailea)

Ez eta gutxiago ere. Burgoskoa naiz eta beste asko ez bezala, integratuta nago hemen. Maniobra politikoa izan da PSOEk, adibidez, egin duena. Hau beti izan da, gainera, gaztelarak zanpatutako lekua, eta alderantzizko jarrerarik ez luke hartuko jendeak.

# LENIZ

## AUTO ESKOLA



**GIDABAIMEN GUZTIAK ZURE ESKU!**

**ARRASATE - ESKORATZA**

# BAKAILO ETXEA

Makailoa eta beroni buruzko produktuak  
Makailoa, kroketa eta piper kazolak prestatzen ditugu

Mondragones 7, (Azoka ondoan) Tfnoa: 79 93 07 ARRASATE



**BELUN**  
taberna

Lagunarte bikaina

Garagarza auzoa z/g Tfnoa: 79 61 14

# Memesa

**79 42 22**

Erdiko kale. 79 19 37



Ferrerias. 79 87 62



**BEHARREZKO  
TELEFONOAK**

**ERITETXEAK**

Arrasateko Eskualde-Ospit.....	79 53 00
Igualatorria .....	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak) .....	79 39 00
(emakumeak) .....	79 44 11
Buru osasunerako zentrua.....	79 90 11

**GURUTZE GORRIA**

Bergara .....	76 55 76
---------------	----------

**DYA**

Antzuola .....	76 62 91
----------------	----------

**ANBULATORIOAK**

Arrasate (Larrialdiak).....	79 13 57
(Txanda hartzeko).....	79 97 22
	79 97 33
	79 97 44
Oñati .....	78 08 52
Eskoriatza .....	79 88 96
Aretxabaleta.....	79 74 58
Aramaio .....	(945) 45 51 16

**ANBULANTZIAK**

Gipuzkoako ambulanziazak.....	45 87 44
-------------------------------	----------

**UDALTAINGOA**

Oñati .....	78 04 11
Bergara .....	76 14 69
Arrasate .....	79 14 39
Aretxabaleta .....	79 10 52
Eskoriatza .....	79 03 22

**ERTZAINZTA**

Arrasate .....	79 71 99
----------------	----------

**SUHIITZAILEAK**

Udal taldea .....	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua .....	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea.....	78 28 00

**MATXURAK**

Urak (udal zerbitzua).....	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero).....	79 05 81
Gasa.....	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78

**GARRAIOAK**


Taxiak .....	79 12 22
P.E.S.A. ....	79 14 19

**HIRUGARREN ADINARENZAKO  
ZENTRUAK**

Iturbide Egoitza.....	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza.....	79 81 57

**KONTSUMITZAILEARENZAKO  
INFORMAZIOA**

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte.....	79 87 77
--	----------



**19**

**OSTIRALA**

• • •

- Zinea: Alai. "La jungla 2-Alerta Roja", 7 eta 9.30etan.

Novedades. "Dick Tracy", 10.30etan.

- Almeneko 25. urteurrena dela eta, Arrasateko San Juan Bautista elizan Kontzertua.

- Txibiston Bergaran: Immaculate Fools, gaueko 10.30etan

- Goardiako farmazia: A. M. Morales, San Andres.

**20**

**LARUNBATA**

• • •

- Zinea: Alai. "La jungla 2-Alerta Roja", 5, 7.30 eta 10.30etan.

Novedades. "Dick Tracy", 5, 7.30 eta 10.30etan.

- 10.30etan musika emanaldia "The Four Brothers" afrikar musika taldea. Amaian
- Deba Garaiko ekologistek

antolaturik Mendi Jaia, hegaztiei ongietorria. Herri bakoitzean irteera goizeko 8.15etan izango da. Arrasaten Portaloian.

- Aretxabaletan "Albada" madrigalista taldearen kontzertua Zاراia zineman, arratsaldeko 8etan.
- Goardiako farmazia: Azkoaga, Ferrerías.

**21**

**IGANDEA**

• • •

- Zinea: Alai. "La jungla 2-Alerta Roja", 5, 7.30 eta 10.30etan.

Novedades. "Dick Tracy", 5, 7.30 eta 10.30etan.

- Goardiako farmazia: Español, Iturriotz.

**22**

**ASTELEHENA**

• • •

- Zinea: Alai. "La jungla 2-Alerta Roja", 7 eta 9.30etan.
- Novedades. "Dick Tracy", 7.30etan.

- Goardiako farmazia: M. Corcuera, Musakola.

**23**

**ASTEARTEA**

• • •

- Zinea: Alai. "La jungla 2-Alerta Roja", 7 eta 9.30etan.
- Goardiako farmazia: Irizar, Erguin.

**24**

**ASTEAZKENA**

• • •

- Goardiako farmazia: Amezua, Santa Marina.

**25**

**OSTEGUNA**

• • •

- Zinea: Alai. "Desafio total", 7 eta 9.30etan.
- Amaia. "Desde Liverpool con amor", 8.30etan.
- Hitzaldia AEDn, "Dietetika, erregimena, ariketa fisikoak, ariketa pasiboak...", Sabin Padillaren eskutik.
- Goardiako farmazia: A. Ruiz, Maala.

**Kirol  
Agenda**

**FUTBOLA**

• • •

- Igandean arratsaldeko 4etatik aurrera Atxabalpeko futbol zelaian hirugarren mailako futbol partidua Mondra eta Errenteriako Touring taldeen artean.

**FUTBITOA**

• • •

- Zaldibarko txapelketaren barne, 30 partidu jokatuko dira ostiraletik igandera bitartean Zaldibarko frontoian, Musakolako kiroldegian eta Santa Teresa ikastetxean.

**ESKUBALOIA**

• • •

- Musakolako polikiroldegian arratsaldeko 6etatik aurrera Arrasate Kirolak eta Ormaiztegi taldeen arteko partidua.



## Mendia


• Besaide Mendiko Elkar-teak Leizargarateko aterpea margotzera joateko asmoa du larunbata hilaren 20rako

• Orientazio Ikastaroa. Besaide Elkar-teak Mendiko orientazioari buruzko ikastaroa antolatu du, hilaren 27 eta 28rako, Leizargarateko aterpean. Ikastaroa 500pta kostako da, eta izena emateko datoren asteartean egin behar da, 7,30etatik 8,30etara.

## Liburuak

• Ixtorio-Mixterio eta Ipuin-Mipuinak Jean Barbier eta Bernardo Garro "Otxolua", Bilbo Sutondoan 1989.

Iaz labayru ikastegiak argitaratu zuen liburu honetan herri ipuin bilduma gozagarria aurki dezakezue, irakurgai arima eta balio bikoitzuna: herri literaturak duen xarma berezia eta, euskara aldaera bitara (bizkaieraz eta lapurteraz) ematen zaigunez, geure eguneroko molde fosilizatuendako aberasgarri.



## Ospakizunak

• Almeneko ikastetxearen 25. urteurrena dela eta makina bat ekintza antolatu dituzte ostiral eta larunbaterako. Ostiralean, eguerdiko 2.30etan ikasleentzako ikuskizunak izango dituzte: Porrotx, Pirritx




## Erakusketa

### "Gizakia eta bere inguru ekologikoa"

Kultur Bideetan programaren barruan iritsi da erakusketa hau Arrasatera. Batez ere gazteenei zuzendurik, ingurune ekologikoaren babes beharraz oharterazi nahi da herria. Ametz taldeak, programazioaren ardura bere gain hartu duen taldeak "gure inguruaren errealitateaz informazioa ematea" du helburu erakusketa honekin. Ametz, Gurutze Gorria, Basogintzako taldeak, Oñatiko Txillarra sendabelar taldeak, Aitzorrotx talde etnografikoak eta Itsasoari buruzko Mañaria eta Lekeitioko bi talde dira, besteak beste, erakusketan panelak dituztenak. Eskolameentzat ordutegi eta bisita bereziak daude antolaturik, eta aurrez zehaztutako orduetan joan ahal izango dute taldeok. Gainerako jendearentzat arratsaldeko 6etatik 8ak bitartean izango da irekita eta asteburuetan baita eguerdian ere.

eta Takolo pailazoak, Peter Roberts mimoa, eta "Hamalau heriotz"en antzezpena. Arratsaldeko 7etan 25. urtemugarren inaugurapen ekitaldia egingo da, Antonio Kanpos, Txaro Iraeta, eta Aitor Sarasuak hitzaldia eskainiko dutelarik. 8.30etan lunch-a eskainiko da, eta gaueko 10etan kontzertua Eskoriatzako Gorosarri, Aretxabaletako Andra Mari, eta Arrasateko Arrasate Musikal abesbatzen emanaldi bateratuarekin.

Larunbatean berriz, goizeko 10etan kirol txapelketak burutuko dira, guraso, irakasle, eta ikasleen partaidetzarekin, Parapente eta Ala-Delten erakus-



ketaz gain. Eguerdian, asteburu-ko ekintzei amaiera emanez, herri bazkaria guraso, ikasle, irakasle eta ikasle ohientzat, ikastolako kiroldegian. Ondoren, ohi denez, arratsalde osoan luzatuko den erromeria, musikarena trikitilarien esku geldituko delarik

## Jaiak

• Asisko Frantzisko Deunaren jaiak ospatuko dira asteburu-arratsaten. Larunbatean emango zaio hasiera egitarauari suziriak botaz goizeko 10.30etan. Gero Sebero Altube plazan haurrentzako jolasak egingo dira. Arratsaldean berriz, pilota partiduak Zaldibarren, Idiazabal eta Arrasateren artean. Hauek bukatu ondoren, marrazki txapelketa, sari bana-keta eta txokolatada. Iluntze aldera buruhandi, erraldoi eta dultzaineroekin kalejira, 8etan San Frantzisko elizan Urretxuko Goiz Argi eta Ordiziako abesbatzak lagundurik.



Igandean suziri botaldia goizeko 9.30etan, gero Santxeski, zinta karrera eta beste jolas batzuk umeentzat. 12.30etan meza nagusia San Frantziskon. Arratsaldean berriz "Zabale anaiak" trikitilari bikotea Sebero Altube plaza alaitzen izango da.

## Bekak

• Eusko Jaurilaritzako Hezkuntza, Unibertsitate, eta Ikerketa sailak eskola, antzerkigintza, bertsogintza eta kantagintzarako laguntzak ditu. Laguntza horien bitartez eskoletan, eskolameek egindako saioak bultzatu nahi dira. Laguntzak jaso nahi dituztenak eskabideak egiteko epea urriaren 26rarte zabalik dute, eta Hezkuntza ordezkartizan aurkeztu beharko dituzte.



“..... Askoren iritiz oso ondo moldatzen da kamara aurrean mutil rubio hau. Lasai aritzeaz aparte, komunikaziorako gaitasuna azaltzen du. Orain Errealari buruzko informazioa enkargatu diote ETBn eta hor ari da Asier Aranguren, Donostian pisu bat aurkitu nahian.

Aretxabaletan jaio zen 1965ean. Kazetaritzako ikasketak egin zituen Leioan eta iaz Boston-etik bueltatu zen, beka batez telebista-ikastaro bat egin ondoren.

“Gabonetatik aurrera astia hartu behar dut doktoradutza prestatzen hasteko; oraindik ez dakit hala ere zein gai hartuko dudan. Eta idazten ere hasi nahi nuke, beti gustatu izan zait neure gauzatxoak idaztea...”

(Felix Ibagutxi, El Correoko Zabalik-en)

“..... Udaletxetik herritarrei bidaltzen zaien informazioa bi hizkuntzatan inprimatzeko baimenik ere ez du ematen HBko alkateak, eta informazioa erderaz jaso nahi duten herritarrek horrela jaso dezaten errolda bat zabaldu du, aurrez izena bertan eman dezaten. “Errolden garaiak joanak dira”, esan zuen Guillermo Echenique sozialistak, zeinentzat Arrasaten erdal hiztunen egoera “iraingarri” eta “kafkianoa” den, eta gainera alkateak ez du Autonomi Estatutua betetzen”.

(Diario Vasco egunkarian, urriaren 10ean)

Almen: 25 urte eta gero, zer balorazio?

Igarotako urteen aurrean baikor nago uste bait dut Almeneko norabidea argitu duten erizpideak baliagarriak direla etorki-zunari begira.

Bere sorreratik mugimendu sozial baten gainean eraiki da. Jende askok parte hartu du bere ihardueran, bere garaian udal eta enpresen laguntza handia ere egon zelarik. Almenek oraindik 1.800 bazkide ditu, eta uste dut partaidetza sozial honetan dagoela, egon dela, eta egongo dela bere indar handia.

Eskola herrira zabalik eta bere zerbitzura dagoela ondo ulertzea, eta haren arabera ihardutea garrantzitsua da. Alde honetatik, Almenek bere funtzio soziala ondo bete duela adierazi behar da. Duela 17 urte Ikastola bihurtzearen erabakia irekitasun eta bokazio zerbitzuaren lekuko da, Almenek ulertu bait zuen herriaren beharra euskara eta euskal gizartearen bultzadan zegoela.

Ezin dugu ahaztu Almen sortu zela familia guztiak diskriminaziorik gabe euren seme-alabentzat kultura eta hezkuntzaren aukera egin zutelako, kostuak oso bajuak izatea bere ardura nagusienetarikoa izan delarik.

Hemen zintzo jokatu da eta hau lortzeko partaide guztiak hartu izan dute bere gain hezkuntzaren kostuaren banaketa, inork diru arazoagatik Almenetik alde ez zedin.


Hezkuntzan Almeneko ardura giza prestakuntza osoa eskaintzea izan da, berritzaile eta proiektu aurrerakoietan egotearen joera agertuz. Ildo hauetatik jarraituz eta balore hauek beti aurrean, ziur nago beste 25 urteetan ere gai izango dela hezkuntz zerbitzu ona eskaintzeko.

Txaro Iraeta,

Hezibideko arduradun pedagogikoa.



**FAGOR**



**TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA**

**GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN**

**ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA**



**SAMEGO  
GARBIKETAK**

Alfonso X. Jakintsua 5,  
Tfnoa: 79 70 36  
ARRASATE

**LORATEGI**

**taberna**


Iturriotz 7, Tfnoa: 79 04 67



## Aretxabaleta

• Larunbatean, urriak 20, Albada talde madrigalistaren kontzertua izango da Zاراia Zinemaren arratsaldeko 8etan. Errenazimendu garaiko musika egiten du 1985ean Donostian sortu zen talde honek, eta dagoneko 50 kontzertu baino gehiago eskaini dituzte estatuan zehar entretenimendu erizpideetan oinarritutako musika bestatsuz.

• Mankomunitateak antolatutako, gazte langabetuen prestakuntzarako programa berezia eskainiko da Leniz Lanbide Ikastegian. Robotei buruzko 20 orduko ikastaroa izango da, urriaren 29tik aurrera. Automata programagarriari buruzko beste bat eta injekzio mekanikoa eta dieselaren gainean beste bana.



## Bergara

• Pol-Pol mendizale taldeak antolatutako diapositiba lehiaketan aurkeztutako 162 diapositibetatik hauek izan ziren irabazke: Jabier Arzelus, Fernando Markina eta Jabier Areitiok lehen, 2. eta 3. sariak hurrenez-hurren, eta mendiari buruzko diapositibarik onenaren saria Jabier Arzelusek jasoko du.

• Mendia Bizirik taldeak hondakin toxikoek sortzen duten kalteaz jendea oharertzeko pilak biltzearen aldeko kanpainari ekin dio. Era guztietako hondakin toxikoen artean 9 milioi tonelada botatzen direla esaten da. Agintariak arazo honen aurrean kontzientziatzeko, firma bilketari ekin zaio, eta interesik duenak eskoletan, elektagailu denda, zerbitzu, optika eta ferretegietan hartarako ezarri diren paperetan utz dezake bere sinadura.

## Gatzaga

• Bailadako zikloturistak Dorletako Amaren elizan bilduko dira asteburu


honetan, hildako zikloturisten oroimenez. Meza goizeko 11.15etan izango da Dorletako elizan.

## Oñati

• Oñatiko Udaleko Turismo Batzordeak, herri horretako turismo bulegoarentzako anagrama egiteko lehiaketa deialdia egin du. Lehiaketa horretan parte hartzeko oñatiarra izatea da baldintza bakarra eta egingdako marrazkiak ez du 15x15 zmkok baino handiagoa izan behar eta nahi adina kolore izango ditu. Lanak urriaren 30a baino lehen aurkeztu beharko dira, azal itxian eta izengoitiz, eta irabazleak 30.000 ptako saria jasoko du.

## Eskoriatza

• Eskoriatzako gazte talde bat, herriko giro erdaldunaz eta euskararen egoeraz kezkatutik, euskararen aldeko talde bat sortzeko asmatan ari da. Bilerak uda aurretik hasi ziren, eta ostegun honetan bildu dira berriz, Arasaten AED eta Aretxabaletan *Beinke* diren bezala Axtroki izeneko taldea eratzten hasteko. Kezka hori sentitzen duten eskoitzarrei dei berezia egiten zaie.




## Nutrisan-Arrasate Zentru Medikua

- Nutrizio eta dietetikako espezialitatea.
- Mesoterapia estetikaren tratamendua.
- Kirurgia estetikoa eta plastikoa.
- Elektroeskultura-gimnasia pasiboko mahaia.
- RIA laborategia: analisi klinikoak eta alerjiak, Lagun Aro eta beste batzuk.

Ordutegia: goizeko 8etatik arratsaldeko 8etara (aurrez ordua eskatu).

Kale-Aldea 11 etxabehea, Tfnoa: 79 65 78 ARRASATE



PEÑACOB  
Auto-Eskola

Zarugalde 46,  
79 14 01

ARRASATE

## ORTZI erretegia

Angiozar auzoa  
Tfnoa: 76 22 68 BERGARA



## EMK-LKI Zirkus

Hauteskundeen saltsarekin aurrrera eginez, izan dira, joan den aste honetan ere alderdi ezberdinetako ordezkariak gure herrian. Igandean, alderdi sozialistak bi mitin eskaini zituen, San Andresen eta Makatzengan, eta Mayor Oreja ere ibili zen gure herriko kaleetan.

Igandean, bestalde, EMK Zirkus izan genuen Arrasaten, arratsaldeko 7.30etan. Bertara nahiko jende bildu zen, eta giro polita sortu ere bai, espektakulu komikoarekin nahikoa barre eginez. Jaialdian zehar Jaurlaritzaren 4. urteurrena ospatu zen, musika taldea eta gainerako antzezleentzako partaidetzarekin.



### Odolematea

Datorren ostegunean, hilak 25, Arabako Odol Bankukoak izango dira Anbulategian, Arrasateko Odolemaitzek emateko aukera izan dezaten. Ordutegia arratsaldeko 5etatik 8ak bitartean izango da.

# Txandaka

## OREKAREN ALDE... EHIZARIK EZ!

**A**zeri, basurde zein otsoak pilaka hilak "batidatan"... eta 1989an halako albiste bitxiak irakurri ahal izan ditugu: 158 babespeko hegazti zaurituak Nafarroan, gehienak tiroz... Nafarroan sai "leonatua" bala eta postaz hila... legez kanpo arrantzan aritzeagatik Estatuan bahiketak eman... Eta



Clara Elkorobarrutia (\*)

unerik beroenera heltzen gara: urtero I. 230.000 hegazti migraziozko Euskalerritik pasatzean, Europako iparralde hotzetik eremu epelagoetarako beren urteroko bidaian tirokatu eta hilak izaten dira.

Egun, ezin daiteke argudiatu jan-beharrez ehizatzen denik. Irauteko ez dugu azeri, otso, pasozko hegaztiak hil beharrik, ez! Ustez espeziok sortutako "hainbat arazo" ez dira gizakiak eginiko lan depredatzailearen ondorioa baino.

Erakunde Ofizialek eginiko gutxienezko "ehize legeak" ezer gutxirako balio du eta horretaz at, ez da errespetatzen. Udalek badirudi ez dutela gauza handirik egin nahi. Honela, Deba Garaiko zenbait talde ekologistak aurkezturiko mozioaren ondoren, legea betetzea zein Udalen jabegozko lur-eremuetan ehiza debekatzeko eskatzen zuena, erantzun ezberdin hauek jaso ditugu: Bergaran jaso genuen erantzunik onena, Aretxabaleta zein Oñatin ez zuten eztabaidatu ere, Antzuolan ikertzeke laga zuten; Arrasaten lehen bi puntuak onartu ziren,

baina ez hala udal lurretan ehiza debekatzeko eskatzen zuena, Alkateak ehiza debekatzeko aurkako jarrera azalduz.

Dena dela, erakunde ofizialetatik at, kalean bertan nahiko eztabaidatua den gaia da orri honetako... eta badirudi, ehizaren aurkako aldekoak baino gehiago garen

la. Une honetara heldurik, azter ditzagun ehizazaleen zenbait arrazoi "sendo":

- Guk, ehiztari zein arrantzaleok abereen birpopulaketak egiten ditugu... zuek, ekologistek, hori bez. Badirudi hau esatea nahiko dela ezpezieak ezabatzen jarraitetako. Dena dela, birpoblaketak erakundeek bideratu beharko lituzkete, ikerketak egin ondoren eta benetako beharren arabera.

- Ehizak oreka ekologikoa gordezten du. Seriotasun pixka bategaz, nola esan daiteke halako astakeriarik?

Finean ekologia aipatzean ez gara ari hutsik txoritxo eta zuhaitzez, bai zik eta planetako oreka osoaz.

Deba Garaiko talde ekologistek eta uso-pase garaiaren aurrean, kampaia bateratua antolatu dugu. Behar-beharrezko ikusten dugu Udalen laguntza, jarrera hartzeko.

Egia esan, guztiona den zerbaitez bakar batzuk jabetzen diren artean, nahi dutena tirokatuz beraien aurka aurkituko gaituzte natura-zaleok.

(\*) EKlko partaidea

## Monte taberna

Maalako errabala 11, Tfnoa: 79 20 56

## Iosu

argazki denda

Argazkilaritzarako materiala.

Erreportaiak.

Ikastaroak

Olarte kalea 11, Tfnoa: 79 82 60





EKI, Eguzki, Amilotx, Mendia bizirik eta Gipuzkoako Ehizarik ez prentsaurrekoan

## Hegaztiei ongietorria

### Bailarako ekologistak ehizaren aurka

Eguzki, EKI, Bergarako Mendia Bizirik, Aretxabaletako Amilotx eta Gipuzkoako Ehiza Ez taldeek asteartean eman zuten prentsaurrekoan, azken urteetan egiten duten ehizaren aurkako ekintza bateratuaren berri eman zuten. Naturaren arazorik larriena ez baina deskaratuena badela, eta beste arazoak ahaztu barik lehenengo kendu behar den arazoa dela azaldu zuten. Gaur egun gizarte osoak baztertzen duen ekintza basatizat jo zuten ehiza, kapritxoaz asetzen den pasiotzat ehiztarien zaletasuna eta behingoz salatu beharra dagoela adierazi. Inkestek diotenez, Euskadin bezala estatuan ere eritzi publikoa ehizaren aurka dago, eta irtenbide bezala, gai honetan ere birmoldaketa eskatzen dute ekologistek, plater tiraketa edo antzekoren bategen ordezka dezala ehiza.

Ehizari ezatza esan beharra oina-

rizko baloreen kontua da Deba Garai-ko ekologisten eritziz, eta orokorki bizitzaren, naturaren eta izakien aurrean dugun jarrera aldatu beharra azpimarratu zuten, eta administrazioak arazo honen aurrean duen jarrera pasiboa salatu, teoriarik jarri diren lege aurrerakoiak ez dira eta betetzen. Politikoak ez omen dira arazo, oztopoak jartzen dituztenak gai honetaz arduratzen diren teknikoak direla jakin arazi zuten prentsaurrekoan.

Arazoaren larria adierazteko emandako kopuruen artean aipagarri, Gipuzkoako 27.000 ehiza baimenak eta 1.400 ehiza-postu "legalak". Hegaztien etorrera, ehizaz gain ospatzeko arrazoi ere badela agertuz, larunbaterako "hegaztieri ongietorria" antolatuta dute. Horrekin batera, iaz udaletan aurkeztu zituzten mozioen jarraipena egiteko asmoa ere azaldu dute.

## Usteak uste

New Yorkeko aireportuan jakin izan nuen, txirripaz, PSOEK salatu egin zuela Arrasateko Udala Arartekoaren aurrean, herritarren ehuneko ia 70a lotsaraziz, euskara gehiegi erabiltzen omen duelako.

Albisteak *El Pais* egunkariak zekarren, eta nik dakidala behintzat, okerrez josita. Plenoak euskara hutsean egiten direla esaten zuen, besteak beste, kazetariak. Arrasateko Udalaren osoko bilkuratan egon den edonork daki hori ez dela egia eta puntu horretara helduta, Mondragoeko sozialistek esplikatu egin beharko lukete ziri horiek eta euskararen kontrako kanpaina zorioneko elebitasun ideala gaztelania hutsean aldarrikatuz zertara datorren.

Harrigarria izan da, bestalde, arazo horrek hortik zehar harrotu duen hautsa ikusita, herrian zein oihartzun txikia izan duen.

Ez da berdin gertatu kamioizaleen grabarekin. Honen oihartzunak ezta egin du kalean, zenbait kasutan muga pentsaezinetaraino. Jendea, bildurrituta, jakiak pilatzen ibili da, zer gerta ere.

Kamioizaleek eskari serioak dituzte. Greba planteiatu duten moduan, berriz, sekulako kostoa suposatzen du gizartearen beste sektore batzuentzat. Eta hortxe dago koska: zilegi da nor bere interesak defenditzeko gainerakoenak kolokan jartzea?

## LA UNION

Garaje elektro-mekanikoa  
Agentzia ofiziala

Tailerra: Zaldispes 2,

Erakusketa: Sancho Abarka 6,

ARRASATE Tfnoa: 79 97 12




## LEKIN


Ileapaindegi mistoa

Erguin 15 etxebehea,  
Tfnoa: 79 80 23 ARRASATE





Pedro Guridi Pedrotxo



Enrike Letona

## Salaketa eta epaiketa

### Pedro Guridi eta Enrike Letonaren kasuak auzitan

Pedro Guridi, "Pedrotxo", preso arrasatearrak espetxean jasan dituen torturengatik salaketa aurkeztu dute bere senitatekoek Gran Kanariako Guardiako Instrukzio epaitegian. Urriaren 3an bere gurasoak ikustaldia egitera joan zitzaizkion, kanariar uhartetako Salto del Negro deituriko espetxera. Hogei minutuko bisitaren ondoren, funtzionarien aldetik inoiz baino gogortasun handiagoa somatu eta handik alde egin bezain laster esposatu eta zakarki jipoitu zuten preso arrasatearra bost funtzionarik, familia-

koen salaketan esaten denez.

#### Epaiketa

Urriaren 22an, astelehenez, Enrike Letonaren aurkako epaiketa izango da, eta Amnistiaren aldeko batzordeak autobusa antolatu du bertara joateko. Irteera igande gauean izango dira, 3etan arbolapeetatik, eta joateko asmoa dutenek Irati tabernan eman behar dute izena.

Enrike Letona zazpi urtez egon zen errefuxiatuak Iparraldean, eta larritazuzko prozedura erabiliak estraditatu zuten.

#### □ Santamainako liburutegia

Santamaina auzoan liburutegiaren esperientzia pilotua jarriko da martxan, azaroaren 5etik otsailaren 28ra bitartean. Proiektu horretarako 743.600 pta ematea erabaki du Udalak.

#### □ Ingurugiro eskola

Udalako ingurugiro eskolaren aurkezpena ostiralez egin ondoren, datoren astean bilera berezia egingo da proiektu horretaz arduratuko den Talde Pedagogikoa nola osatu erabakitzeko, eta bitartean Jose Luis Herizi adjudikatu zaio sinboloa eta triptikoa egiteko lana.

#### □ Etxebizitzak

Lau-Kaleko etxebizitzaren oinarriko proiektuari bere oneritzia eman dio Udalak, aste honetako Gobernu Batzordean.

#### JAIOTZAK

Raso Azkargorta *Nekane* Urriaren 3an  
Zeziaga Goiena *Imanol* 5an  
Bastida Fernandez *Jon* 7an  
San Migel Galañena *Beñat* 3an  
Urzelai Perea *Ikerne* 7an  
Zengotitabengoa Iraegi *Olaia* 9an  
Sagasta Franco *Michael* 11an  
Marquez Errasti *Alaia* 12an

#### EZKONTZAK

Juan Ramon Allende & M<sup>a</sup> Pilar Segovia. Urriaren 12an. Elizaz  
Jose Estella & Elena Feo. Urriaren 13an. Elizaz.



## ARRASATEko UDALA

Udal honek, oposizio-lehiaketa irekiaren bidez, honako lanpostu hau bete nahi du:

### ARKITEKTUA

Deialdian araupetzen duten oinarriak Arrasateko Udaletxean jaso daitezke, eta urriaren 15eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu dira. Eskaerak aurkezteko epea azaroaren 8an amaituko da.





Urte guzian zehar ekintzak burutuko dira

## Almenek 25 urte bete ditu

### Ospakizunak asteburu honetan hasiko dira

Eskoriatzako Almen Ikastolak bere 25. urteurrena betetzen du aurten. Ospakizunen hasiera asteburu honetan izango bada ere, ikasturte osoan zehar hainbat ekintza burutuko dituzte ikasle, irakasle eta gurasoek.

Orain 25 urte, ikasketak egitera kanpora joan behar ez izateagatik eta kooperatiben barruko ideia bezala, Marianistek bainuetxe zaharrean zuten ikastetxea hartu zuen guraso talde batek. Almen 1967an legezatu zen, eta 70-71ean oraingo edifizio berrira pasa.

71-72an egin zen ikastola.

Gaur egun, 1.400 ikasle biltzen dira Almenen OHO eta Batxilergo ikasketak egiten, eta 80ko langile taldeak osatzen du plantila, irakasle eta zerbitzuetarako artean. Euskara eta euskal kulturaren oinarritutako kalitatezko irakaskuntza ematen saiatu den ikastetxe honek, sortzaileei eta lehen junta errektorakoei omenaldia eskainiko die asteburu honetan, irakasle, guraso, ikasle, eta ikasle ohiei zuzendutako beste ekintza askorekin batera.

#### Heriotzea

Ramon Larzabal Telletxea, 29 urteko arrasatearra Bilbon hilik aurkitu zuten joan den astelehenean. Itxura guztien arabera, heroina sobredosia izan da bere heriotzaren arrazoia, baina oraindik ere Bilboko Zentru Anatomico Forensean egingo zaion autopsiaren emaitzen zain geratu beharko dugu ezer garbirik jakiteko.

#### Etxea hondamenean

Ferrerias kaleko 10 eta 12. etxebizitzaren hondamendi egoera aztertu ondoren, Arrasateko Udaleko Gobernu Batzordeak erausketarako proiektua aurkezteko agindua ematea erabaki du. Proiektu hori prestatu eta aurkezteko 15 eguneko epea izango dute.

#### Mugarritte

Mugarritte izenez ezagunago den S-10 Sektorearen Urbanizazio Proiektuaren idazlana Roberto Telleriari adjudikatuko zaio, eta ingurune hartako urbanizazioaren nondik-norakoa azalduko duen proiektua abenduaren 10erako aurkeztu beharko du.

#### Domund eguna

Igande honetan izango da hirugarren munduari laguntzeko urtero Gipuzkoako Elizbarrutiak burutzen duen egun berezia. Iaz Arrasaten bildu zen diru kopurua milioi batekoa izan zen, eta Arrasateko Arziprestazgoan, berriz, 3.510.293 pta.


# R

## RICOH

Telefax-kopiagailuak

# EMANKORRA

RICOH kopiagailu edo telefaxa eskuratzen duzunean, iharduera-maila hobetzen ari zara zeure bulegoan. Eraginkortasunik handienaz lan egingo dute behar duzun denboran; emankortasunez eta nekatu gabe.



RICOH FT 7060


Informaziorik nahi baduzu, jarri harremanetan MAQUELSarekin.  
Avenida 52 etxabea, Tfnoa: 945-24 22 04. Fax: 24 64 97 01008 GASTEIZ



**Ze balorazio egiten duzu Udalaren euskararen erabilpenari buruz Arrasateko PSOEek egindako deklarazioez?**



PSOeri ere eman diogu bere eritzia azaltzeko aukera, baina ezetza jaso dugu.



### AED

Ez dugu uste une egokiena denik gai horri buruzko, eta po lemika horren inguruko deklarazioak egiteko. Arrasateko Udalak eta bertako alderdi gehienek daukaten euskara politikarekin ados gaudela orohar. Horretan ez dago zer esanik.

Bestalde, iruditzen zaigu alderdi sozialistarentzat, gauden garaian egonda, prentsan ateratzeko bidea izan dela deklarazio guzti hauek egitea.

Oraingoz zehaztasun gehiagotan sartu nahi ez dugun arren, beharrezko ikusten dugu gai hau geroago sakon aztertu beharra, eta aurrerago sartu beharko dugu, ez alderdi politikoek bakarrik, herri honetan bere burua euskaltzaleztat duen edozeinek baizik.

J. M. Mujika



### Hezibide

Udaletxearen helburu nagusienetariko bat herriaren onerako elkarbizitza bultzatuko duen erakundea izatea dela uste du Hezibidek, bertan komunikazioa ezinbestekoa delarik.

Era berean, pertsona bakoitzak berezkoa duen hizkuntzan adieraztea oinarritzeko esku bidea dela pentsatzen dugu.

Zentzu honetan, goraitzekoa deritzogu Udala egiten ari den ahaleginari, bere harremanetan eta herriko entitateen artekoetan euskararen erabilpena ezar dadin.

Asmo horrek Udalarri suposa diezaizkiokeen arazo teknikoak, diru arazoak, itzulpen lanak, etab. Hezibideri ez dagozkion gai teknikoak dira.

Hezibide Elkarte



### Parrokoa

Interes politikoarekin egin go ziren deklarazio horiek.

Nik hizkuntza kontuan lehenetasuna eta nagusitasuna edo nagusikeria bereiztuko nituzke. Euskarak herri honen adierazgarri eta bereizgarri izan behar du, eta komunikatzeko tresna, ez bata bestea menderatzeko. Ez du izan behar nagusitasuna lortzeko borroka ere.

Plenoan euskaraz ez dakienak, zer esaten den jakin egin behar du, eta behin eta berriro norbere hutsa aitortu beharra nagusikeria iruditzen zait. Hizkuntza politikoki edo gizakoiki erabiltzea berezitu behar dira, eta lehenetasuna euskarak izan behar du, nagusikeriara pasa gabe.

Jose Mari Astigarraga

## BASABE JATETXEA

Menu eta afariak  
Boda eta banketeak

ARETXABAETA

**VE ECUADOR**

Kontzesifio 2,  
Tfnoa: 79 14 06  
ARRASATE

**URONDO**  
elektrizitatea




- \* Elektroiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak
- \* Proiektuak

Nafarroa etorbidea 11, Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE

**L ARRINGAN**  
auto gidarien eskola  
KLASE TEORIKOA  
IRAKASLEAREKIN

Garibai 3, 79 22 96 ARRASATE





**HB**

Udala elebakartzat jo dute, eta esan beharra dago elebarkartasun bakarria erdara besterik ez dakitena dela hemen. Hori dela eta, elebarkarren eskubideak defendatzen dituztenak dira gaur egun jokuz kanpo geratzen direnak, eta esaten dute nahi badugu euskaraz egiteko, eurek erdaraz egingo dutela. Gizarte honetan ezin da jarrera hori inola ere onartu.

Argi utzi behar dugu Arrasateko Udaletxean euskara ez dela, esan duten bezala, hizkuntza bakarria, eta ez dago diskriminatuta sentitzerik.

Gure aldetik, bestalde, euskararen inplantazioa behingoz bermatzeko plan nazional baten beharra dagoela ikusten dugu


Xabier Zubizarreta



**PNV**

Gure ustez elektoralismo hutsa da. Polemika hau hauteskundeak pasa eta gero konponduko da, ez aurretik. PSOEk, hauteskunde garaian beti egiten duen bezala, postura Lerrouxista hartu du. Botuak lortu ahal izateko, gure herria bi komunitate ezberdinetan bereiztea interesatzen zaie. Guk uste dugu euskararen gaia oso garrantzitsu eta serioa dela, honela edozein modutan tratatua izateko baino garrantzitsuagoa. Azkenean, espero dugu kontu guzti hau normalizatzen joan dadila, eta ez gara sartuko polemika honetan gehiago, hori da eta alderdi sozialistak lortu nahi duena, eta eurei mesede egitea izango litzateke.

Pedro Urain



**EE**

Jendeak ez daki bere burua telebistan agertzen, eta iskanbila hortik sortu zen. Gero iskanbila baliapide elektoral bihurtu nahi izan dute. Gizarte osoak oro har euskararen alde ahalegina egiten duen garaio-tan, Udalak ere hala egin behar du, eta PSOE ez dator bat ahalegin horrekin, bere burua marjina-tuz. Itzulpena erabili nahi izatean, beren burua marjina-tzen dute, eta itzulpena daukaten zerbitzuetan ere, Jaurlaritzan adibidez, ez dute erabiltzen.

PSOEk talde txiki bat ordezkatu nahi du. Ez du nahi gure herriaren normalizazioa, bere ortutxo-a gordetzea bakarrik, etekina ateratzeko, aurre-rapenean pentsatu gabe.

Aitor Orobengoa



**EA**

Alkatearekin guztiz bat nator. Orain hauteskundeen aurrean gaude eta guzti hau ez da trama publizitarioa baino: norberarengatik hitzegin dezatela, gaizki ez bada ere.

Euskarari euskararena dena emanez gero, eta PSOERI berea, harremana guztiz negatiboa izango litzateke euskararentzat. Argi dago euskarari arnasa kendu nahian dabil-tzala.

Euskarak ez du izan behar trukeko txanpona harreman normaletan eta instituzioa ere ez da zirkoa.

Arartekoak, bestalde, ez die arrazoirik emango, eurena ez delako salaketa erreala, eta isilik pasako da dena, gauze pasako da.

P. M. Ruiz de Azua

# I. Laborra Erdozain

## ANALISI KLINIKOAK

(Lagun Aro, Diputazioa, Prebisa, Asisa, Capisa)

Zerkaosteta 17, etxabehea, Tfnoa: 79 20 18  
ARRASATE

## UDALA

Auto-eskola

Minusbaliatuentzako  
klase bereziak


Otalora 25, Tfnoa: 79 88 56

## KAJOI TABERNA

erdiko kale 22  
tfnoa: 79 32 27



SND, Egunkarien Diseinurako Elkartek antolatuta, prentsa idatziaren diseinua eta teknologia berriei buruzko mintegiak egin ziren S. Frantziskon (USA), bertan mundu guztiko kazetariak bilduz. Argazkian **Warren Lerude** eta **Joxe Aranzabal** Stanfordeko campusean. W.Lerude Renoko Unibertsitateko irakaslea da, Pulitzer saria irabazi zuen kazetaritzan eta parte handia hartu zuen Renon Euskal Artzainari eraikitako eskulturaren alde dirua biltzen. Euskal Herriko ezagutzaille ona, alaba bat du Donostian ikasten. ▶



▲  
Astelehenean, arratsaldeko 7ak inguruan auto batek su hartu zuen San Andres auzoan. Arrazoia mekaniko hutsez erre zen Citroen BX zuria Doctor Bañez kalean. Oñatiko suhiltzaileek esku hartu zuten itzaltzeko lanetan, eta baita Ertzaintzak ere estintoreekin, sua erabat itzali arte.



▲  
Garagartzako FAGOR-ek Lan Sailburuaren bisita jaso du joan den astean. **Gorñoñogotia, Catania** eta **Mongelos**-ek egin zioten harrera. Eguerdian zehar lantegiak ikusten jardun zuten.

# PRESTATU NEGURAKO LORAMENDI KIROLAKen



**Izen**  
**PROPIOAK**



Asko eta asko dira egunotan berebela edo motorra hartu eta Elorriotik zehar, Besaideko oroitari berria ikustera doazenak. Automobila bertaraino eraman, bertan utzi eta inguruetan paseatu. Joan den igandean -ordukoa da argazkia- arratsaldeko bostetatik seiak bitartean, zazpi izan ziren han egon ziren autoak. Euskal Herriko Mendi Federazioak erremedioa ipini beharko dio, eta aguro, asfaltokumeon gehiegikeriagatik Besaide ingurua guztiz hondatuta ikusi nahi ez badugu.

● **JOSE LUIS HERIZ, 34**, arrasatearrari, Udalako Inguru-giro eskolan erabiliko diren logotipoa eta triptikoa diseinatze-ko ardura eman dio Udalak. Jose Luis diseinatzaile industrialari da, eta Eskola Politeknikoan Injinerutzā ikasi ondoren, Milanon egon zen diseinu industrialari buruzko espezializazioa egiten.

● **JAIONE LASANTA, 30**, arrasatearra, Mondragoeko Udalean hasi da delineante lanetan. Eskola Politeknikoan delineazioari dagozkion ikasketak egin ondoren, Udal Euskaltegian ibili da idazkari bost urtez, eta orain udaletxean hartu dute bere espezializazio-ko lanak buutu ditzan.

Gurutze Gorriak Musakolan antolatu duen sokorrismo ikastarokoak dira. Herritar guztientzat zabalik izan bada ere, soldadutza San Prudentzian egingo dutenentzat zuzendurik dago batez ere, eta hiru astetan zehar izango ditugu Musakolan. ►



● **NIKO ZABALETA, 33**, bergararrari, Lan Kide Aurrezkiaren sariketan milioia egokitu zaio. Niko Arrasateko Maxi Eroskiko gerente lanetan ari da iaz zabaldu zenetik eta Maestria industrialeko ikasketak ditu eginak.

**Adi!**

**INGELESA**  
Edozein maila

ORDUA: Goizeko 10ak eta 12ak artean  
Arratsaldeko 2ak eta 4ak artean.

Aproposa : etxeakoandrentzat, langabetuentzat  
ikasleentzat, dendarientzat eta  
ordu horietan libre dauden guztientzat

**PROMOZIOZKO PREZIOAK**



Araba Etorbidea 4,  
Tfnoa: 79 01 32  
ARRASATE

**ETXE-AUNDI**  
Dastapen-menua  
urriaren 26rako

- \* Itsaskien entsalada belar finekin
- \* Ahate ragout-a letxua hostolan.
- \* Legatza piperrada gainean.
- \* Etxe Aundi gozoteria.

3.500 pta. BEZ barne

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56  
ORATI.



# Greba baten ardurak eta beldurrak

## Garraiolariak hankaz gora jarri dute Arrasateren eguneroko bizimodua


Lerro hauek irakurtzerako badaiteke gauzak oneratuta izatea, baina astean nahiko zeresan sortu du garraioak eta Arrasaten ere eragin nabarmena sortarazi.

Kalean ez da besterik entzuten. Aste bi iraun ditu kamioizaleen grebak, baina gure bailadan aste honetan antzeman dugu, herria geratu ere egin bait da gauza askotan. Okindegietan, gasolindegietan ilada handiak ikusten ziren asteartean, erabat hustu ziren arte. Edozein dendatako apalak, berriz, erdi hutsik: fruita, barazkiak, haragia eta arraina ahiturik zeuden eta esnea, ogia eta arrautzak neurtuta saldu dira.

Baina garraioaren sektoreko grebak enpresetan izan du eraginik handiena: Fagorrek, Mayc-ek, Gelmak, Tesak, Maxi Eroskik besteak beste, etxera bidali dituzte langileak, lehengai faltaz, eta ia hiru mila langile lanera barik geratu da.

### Erreibindikazioa

Bitartean, beste sektore bateko langileak, kamioi gidariak, lanari utzita daude eta euren erreibindikazioak herriaren sarrera hartu du: Zabaletako zubian etengabe dago hogeiko bat, talde estuan baturik eta erabakitako asmoei tinko eutsiz. Legea bete dadila eskatzen dute: tarifei buruzkoa, zamaketa-hustuketakoa etab. "Birmoldaketa bortitza egiten ari dira gurekin, administrazioak saldu egin gaitu", diote euren egoera deskribatzeko. Beti bakarka



ibili izanak euren buruaren etsairik handien bihurtu ditu kamioizaleak. Elkartu eta indarra hartzea lortu dute eta helburua ez da sindikatuen bandera eramatea, sektorea dago eta gaizki.



Ogiaren zai hiladak egin ziren okindegietan

### Bilakaera

Hasierako jarrera gogoragoa bazen ere, astean zehar gauzak aldatuaz ikustearekin, piketeen presioa arindu egin da. Asteazkenean ogia eta esnea sartzten utzi zituzten eta baita ospitalerako materaila ere. Jakin badakite, hala ere, autoetan sartzten dela haragia eta arraina, "autoen ipurdiak behea jota datoz eta"; baina utzi egiten dute, herria zerbitzu minimorik

gabe gera ez dadin. Hala ere, baimenik gabeko furgonetak dabilta arazo hau dela eta aberasten.

Enpresetakoa da beste kontua, eta hainbat jenderen apoioa galdu dute, badakite

eta kooperatibetan jaiegutetan errekuiperatu behar dela.

### Piketeetan

Bailada guztiko txoferrak bildu dira txandaka, etengabeko zainketan. Euren hitzetan, ez dute inor behartzen, "ikus gaitzaten bakarrik nahi dugu, asko bait gara, eta herrialde askoren odola gainera". Lanean ari diren lankideei informazioa ematen diete eta irtenbiderik lortzera denentzat lortuko dela azaltzen.

Euren artean 50 urtetik gorako asko ageri da. "Gazteak gaez egoten dira", diote, baina Arrasateko transportistetan %70 gutxienez jende nagusia dela aitortzen dute.

### Esperantza

Arazo honek nonbaitetik zirt edo zart egingo dutela erizten diote kamioizaleek, eta laster gainera,



baina aste hau galdutzat ematen dute dagoeneko. Estatu guztiko kamioizaleen grebarekin sektore guztietan galdu dute asko, eta kamioiarekin dabilzate- nek eurek ere ez gutxi. Bai- na inguruan solidaritatea ikusten dute eta eusteko prest daude. Merkantziak mugitzen dituztenak eurak direla eta errespetoa zor zaiela uste dute, eta sekto- rari ezarri nahi zaion bir- moldaketa bortitzaren au- rrean har dezaketen bide bakarra dela. *Sintragiko* ordezkarri batek esan digu- nez, greba deskonbokatu barik negoziatzera eseriz gero prest leudeke gutxi- engo zerbitzuak ugaritzeko, baina Irungo muga itxita mantenduko da harik eta zerbait garbia ikusi arte. Administrazioaren konpro- mezu serioa eskatzen dute,



Piketeetan hogeit hamar lagunetik gora beti

edozein modutan baina pu- blikoki adierazia, *"eta ez orain arte bezala promesa hutsak"*. Arazoak konpon-

tzeko itxura hartzeaz bat , hornikuntza lanetan hasiko omen dira, baina hori iritsi bitartean geldik: *"bi astean*


*egon eta gero, honezkero eurak bajatu daitezela asto- tik"* dio gidari gazte ofatiar batek.

## Arazoaren beste aldea

**D**endara joan eta ezer ere ez bilatzeak larritu egin du jendea. Kontuak luze joko ote duen beldur dira, eta bada ez bada ere janariz ongi hornituta egon nahi lukete. Horren aurrean denetik ikusi da: 16 ogi etxera eramane dituen etxeoandrea, saskia olio botilaz bete duena, eta Nafarroara janari bila joan den familia, esaterako. Ahalik eta gehien hartzera joate horrek neurriak hartzera behartu ditu dendariak eta asteazkenean razionalizatuta banatu dira ogia eta esnea.

Guzti honek ekarri du zenbaitentzat dirua egiteko biderik ere: kanpotik ekarritako gaietan salneurriak beldurgarri igo dira (Tomateak 200ean eta lekak 400ean, edo furgoneta batean ekarri zituzten platanok, adibidez, 100 ptan saldu da alea). Kamioizaleei minik handiena egiten diena baimenik gabeko furgoneten joan etorria da, euren grebaren lepotik aberasten ikusten dituzte eta.

Arazo honen beste aldea, hala ere, etxeetara iritsi barik geratzen diren produktu galgarriak dira. Baserritarrek, arrantzaleek, galtzen ikusten dute kostata ateratako esnea eta arraikia, nahiz eta asteazkenean batzuk eramane ahal izan zuten esne apurren bat zentraletara.



Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)  
Tfnok: 79 58 11 / 79 59 76


**Gauzak gordetzeko kutxa metalikoak**  
**Otzaratzarrak**  
**Giltzak gordetzeko armairuak**  
**Erremintak eramateko gurdiak**  
**Erremintak gordetzeko armairuak**  
**Lan egiteko aulkiak**

**BRANKA**  
*jatetxea*

Eguneko menua eta karta




# DICCIONARIO DE AUTORIDADES DEL EUSKERA



la 2.000 urte iragan behar izan dira Euskal Herriko historia irauliko duen hiztegia eduki ahal izateko. Zeren eta, zer gertatuko litzaloke Euskarari Hiztegi hau gabe... Eta zer Euskal Herriari Euskararik gabe?

- 9 liburuzki dotore eta, aidi berean, erabilierrazak.
- Marmol berde koloreko zurtzaruzko azalak, 24 kiletatoko urtegiak eta eginak estampazioekin.
- Landare-hariz jositako plieguak.
- Paper sendoa pik-a-pik-a bat hezur kolorekoa.
- Fotokoposizioa bi zutabetan egin, tipografia eder eta argiaz eta lau letra-mota ezberdinez testua hobeto irakurri eta ulertu ahal izateko.
- Euskarari buruz sekula egin den lanik handiena, euskal dialektologian aditunik jakintsuenak direnak zuzendua.
- Behar beharrezko lana euskararen azterketarako.




**OBRA BEREHALA JASO NAHI BADUZU, DEITU 94 - 445 46 89 Tfnora. (ARANTZA)**

**Euskara ikasteko erabili beharreko obra**

**LASTER PREZIO IGOERA**

**Ernesto Amaia Argitaletxea**  
 Paseo Campo Volatin 24, 4. D-3 48007 BILBO  
 Tfnoak: 94-445 46 89 eta 446 69 93





Sabin Padilla

## Medikuntza kirolean sartu nahian

**S**abin Padilla duela 31 urte Otxandion jaio zen, orain Landan bizi bada ere bere emazte eta seme-alabaekin. Fisiologo ikasketak burutu zituenean, Frantziako St.Etienne hirira joan zen kirol-medikuntzako ikastaroak bertan egin zituelarik. Frantzian egon zen denboran goi-mailako kirolariek ari izan zen. Gau egun Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslez gain, Euskal Kirol Institutukoa ere bada.

— *Goi mailako kirolariak egin edo jaio egiten dira?*

— Gauza biak dira egiak, lehendabizi jaio egin behar da eta gero egin, baina gauza errezagoa da egi-tea sortzea baino. Horrekin esan nahi dut uste baino jende gehiagok duela aukera. Fondo handia eskatzen duten kirolariak sortarazteko esaterako egunero egin behar da lana eta hor egin daitezke kirolariak; fondo gutxiakoetan, aldiz, baliteke sortzea egitea baino garrantzitsuagoa izatea.

— *Eta zer egin behar du kirolariak goi mailara iristeko?*

— Hiru gauza daude oso garrantzitsuak: lana, lana, eta lana; ondo entrenatu, bizimodu egokia eraman,

eta elikadura zaindu. Arau garrantzitsuenak horiek lirateke.

— *Aipatutako arau horiek betetzea zaila izango da bada, gaurko gazteenzat?*

— Bai, eta batez ere Arrasate moduko inguru batean, oso giro aberatsa eta noktanbuloa delako. Hala eta guztiz ere, sortzen dira goi mailako kirolariak, baina uste dut aurreko bi baldintza horiek ez baleude, askoz ere gehiago aterako liratekeela. Beti izango da norbait aterako dena eta goi mailara iritsiko dena, baina bizimodua aldatzen ez den bitartean gutxi batzuk besterik ez dira izango goi maila-

== “

Jendea nekatu egiten da,  
baina erre ez”

ra iritsiko direnak.

Horretaz aparte, badira beste baldintza batzuk ere, esaterako euskaldunon morfologia.

— *Kirolariak egiteko lan horretan jendea ez al da erretzen?*

— Ez, jendea ez da erretzen. Jendea nekatu egiten da, bai fisiko aldetik eta baita psikologikoki ere, bai-

na erre ez, fisikoki ezinezkoa da. Askotan esaten da kirolari hau edo bestea erre-ta dagoela. Errendimendu txarra besterik ez da. Gehienetan fisikoarekin ez du zerikusirik izaten errendimendu txar horrek, beste arazo batzuk izaten dira eta kasu bakoitza ikertu beharko litzateke, arrazoiak zeintzu diren jakiteko.

— *Kirol medikuntzaren laguntza barik posible da gaur egunean goi mailako kirolari izatera iristea?*

— Bai, noski. Afrikar herrialdeei begiratzea besterik ez dago. Argi dago, kirol medikuntzak asko lagundu dezakeela.

— *Afrika alde batera, Europako herrialdeetan*

*kirol medikuntza hemen baino askoz ere ezagunagoa da. Zer gertatzen da hemen oraindik ia ezezaguna izateko? erakundeek badute interesik?*

— Dagoeneko badira hiru urte Roman Balanzategi, Lagun Aroko medikuak eta biok Arrasateko Udalariko proiektu bat aurkeztu genio-la, Zentruaren eta Anbulate-

giaren instalazioak aprobetxatuz, kirol-medikuntza zerbitzu bat sortzeko bailara guztiarentzat. Denbora pasa da eta oraindik ez zaigu inor etorri esanez proiektua ondo edo gaizki dagoela, bada-goela gogo horrelako zer-bait egiteko, etab. Ez da Arrasateko Udalaren arazoa, baizik eta Euskalerriko erakunde guztietakoa. Bakarririk esatearekin oraindik ez dagoela Euskalerriko osoan kirol medikuntza zentru bat... Ez da udalen konpetentzia, gehiago Eusko Jaurlaritzarena eta Foru Aldundiena, baina zerbait egin beharko luketela iruditzen zait.

— *Hainbeste goi mailako kirolariren artean mugitu den, mugitzen den, eta mugituko den Sabin Padillak, zergatik gehienbat bere kargu gizonezkoak hartzen ditu eta ez emakumezkoak?*

— Ez dago apartekorik. Gertatzen da ez direla nire taldera inguratu, bi edo hiru badabilta ere.

Bestalde, esan behar da gaur egun emakumeen dispozizioa kirola egiteko nahiko txarra dela, oso maila baxua daukate. Baldintzak gizonek dituzten berdinak dira, baina beste gauza batzuetara jotzen dute normalean, ez kirolekara.



# Igeriketarako makina bat aukera

*Adinaren arabera gorputza uretarako prestatu ahal izango dute umeeek*

Igeri taldekoek aurtengo denboraldiari begira dagoeneko prestatu eta aurkeztu dituzte programa ezberdinak, igeriketa munduan sartu nahi duten guztiak aukera egin dezaten. Klaseak Musakolako kiroldegian izango dira, eta adinaren arabera, ordutegi desberdinak moldatu dituzte.

5 eta 7 urte artean dauden haurrek astearte eta ostegunetan izango dituzte klaseak, arratsaldeko 5.30etatik 7etara bitartean; 7 urtetik 9 urtera daukatenek berriz, astelehen, asteazken, eta ostiraletan ordutegi berean. Aipatutako adinetan dauden umeei, joko bidez, uretatik kanpo hezkuntza fisikoa eta era mailakatuan igeriketako estiloak erakutsiko zaizkie.

10 urtetik 13 urterartereko haurrentzat egunero bi orduko klasea egongo da, betatik aurrera, uretatik kanpo entrenamendu orokorrak eginez eta uretan igeriketako estilo desberdinen hobekuntza landuz.

Bi ordu t'erdiko klaseetarako



Arrasateko igeri taldekoek nolabait etorkizuna gaurtik landu nahi dute.

aukera izango dute egunero 13 urtetik gora daukaten neska-mutikoeak. Aipatutako azken hauek uretatik kanpo igeriketarako entrenamendu berezia landuko dute, izaera berezi hori piszina

ere landuko delarik.

Aipatutako ikastaroetan parte hartu edo informazio gehiago eskuratu nahi duten guztiak, dagokien orduan ager daitezke kiroldegian bertan.



## Gay, atletismotik bizitzekotan

Bihar 20 urte beteko dituen Jose Antonio Gay atleta arrasatearrak etorkizunari begira apostu gogorra egin du. Gasteizen historia ikasketak egiten ari zen. Bapatean utzi, Donostiara bizitzera joan eta han Bartzelonako Joku Olinpikoetan egon ahal izateko entrenatzen hasi da. Momentuz hamar saio egiten ditu astero eta dirudienez, bere asmoa bi urte entrenatu ondoren Olinpiadetako errelebotan parte hartzea da. Esandakoaz gain aipagarria da Donostiako Errealak eskaintzaren bat egin diola arrasatearrari, baina Gay hemen gelditzekotan dela, Arrasate Kirolak-ekin akordio ekonomikora iristen bada behintzat.

**E D E L  
TAPIZTEGIA**

*Gortina  
Alfonbra  
Koltza*

Bidekruzeta 14, Tfnoa: 76 16 25  
BERGARA

**F A N C Y**

**GAZTEEN MODA!** Bizkaia Etorbidea 1, Etxabea. Tfnoa: 77 14 24



J. L. ELEXPURU

## Uretako gizona

Jose Luis Elexpuru, 42 urteko arrasatearra, betidanik nahiago izan du uretan ibiltzea lurlean baino. Txikitan errekan egiten zuena, gaur egun bere erdi-ogibidetzat dauka, izan ere Musakolako kiroldegiko monitoretariko bat da eta egunero bertan aurki daiteke eguerdiko ordubietatik gauarteraino. "Hamairu urte daramatzat umeei igerian erakusten. Ordubietan hasten gara lanean eta 5ak arte ikastetxeei eskeintzen diegu gure denbora. Hortik aurrera euren borondatez datozenekin ibiltzen gara. Urte hauetan behar bada milioi-erdi pertsona pasatuko ziren hemendik. Jendeak esango du Arrasaten milioi-erdi pertsona ez dagoela, eta hori larregi izango dela. Kontuan hartu behar da 13 urte direla, eta hamabost egunetik hamabost egunera geletakoak etortzen direla. Horretaz gain, esan behar da hona Bergara, Oñati, Elorrio, Markina, Berriz, eta Aramaioko jendea etorri izan dela eta oraindik etortzen dela".

Igerian erakutsi, bera ere igerilari izandakoa, orain urpeko arrantza egiten duen gizona, eta garai batean igeri taldeko sortzaile-entrenatzaile izandakoa. Azken lanpostu edo kargu horrek poz handiak eman badizkio, barrenean daraman arantzatxoare itsatsi dio. "Nire penarik handiena

# PODIUMA



igeri taldetik estatu mailan txapeldun izan zitekeen inor ez ateratzea izan da. Gipuzkoa eta Euskadi mailan hiru edo lau aldiz txapeldun izatea lortu izan dugu, baina hori baino gehiago ez. Nire ustez denbora eza izan da horren errudun, mutiko bat edo bi Espainiako txapelketara joan ahal daitezkeen ordu eta metro asko sartu behar dira. Orain taldea eusteko joera dago, ez maila hobetzekoa".

Entrenatzaile izan, eta igeri txapelketetan parte hartzeari utzi badio ere, lehen esan bezala, urpeko arrantza egiten du Jose Luis Elexpuruk. "Bai neguan eta bai udaran egiten dugu bertako talde batek. Normalean Muiriku inguruan ibiltzen gara, eta esan behar da zoragarria dela. Igeriketa txapelketetan parte hartzeko garaia pasa ziztaigun, eta orain honen konformatu behar. Urpeko arrantza txapelketetan parte hartu izan du eta ez zait gaizki joan, lagun asko egiten dira eta jendeak besterik pentsa badezake ere, ez da bai ere arriskutsua".

### ◆ Eskubaloian berriro galdu

Ez zaizkio ondoegi hasi gauzak Arrasate Kirolak eskubaloi taldeari liga hasiera honetan, bigarren partidua ere galdu zuen eta. Azken urteetan ohitura izan da Arrasateko taldeak Arrateren aurka jokaturako partiduetan garaipena lortzea, baina pasa den asteburuan ohitura hori apurtu egin zen, Arratek 26 eta 20 irabazi ondoren Arrasate saskibaloi taldeari Ipuruan jokaturako partiduan. Dirudienez lehen zatian arrasatearrek ondo moldatu ziren, baina bigarrenean behera etorri ziren. Dena den, markagailuak ez dauka zerikusirik pistan gertatu zenarekin, horrenbeste alderik ez bait zen egon talde batetik bestera.

### ◆ Berdinketa pilotan

Gipuzkoako klubaren arteko pilota txapelketari eman zitzaion hasiera pasa den asteburuan. Txapelketa horren barne Arrasatek Eskoriatzaren aurka jokatu behar izan zuen, partidua bat galdu eta bestea irabazi zuelarik. Kadete mailan Berraondo-Abasolo Eskoriatzako bikoteak garaipena lortu zuen Arrasateko bikotearen aurkako neurketan, 18-7ko emaitzaz. Gazteen berriz, arrasatearrak garaile, Korta-Markosek 22, Iñurrategi-Galeanok 12.

### ◆ Hildako zikloturistei omenaldia

Igandean aurten istripuz hil diren zikloturisten aldeko omenaldia burutuko da. Goizeko 10etan kiroldegian bildu eta Dorletaruntz abiatuko dira zikloturistak. Dorletan hildakoen aldeko elizkizuna izango da. Ekintza hau omenaldia izateaz gain, protesta gisa erabiliko da eta auto gidariei arreta eskatzeko.

# egizabal


Bidekurutzeta 13  
BERGARA

# Elisabete



## Kirola eta osasuna (III)

**G**eldikortasuna, arrisku-faktorea  
 Geldikortasun edo sedentaris-  
 moa da gizarte moderno, industrialdu eta teknifikatuaren ezaugarrietako bat. Iharduera edo aktibitate fisikoa gutxitu egiten da ahal den neurrian. Izan ere, aparailuak ditugu dena edo ia dena egiteko. Adibidez, eskailerak igo eta jaiste ariketa ona zen garai batean, eta jadanik ez dugu egiten, igogailuak egiten du gure orde. Gainera, autoz joaten gara ia leku guztietara. Eta guzti honen ondorioa? Forma fisiko txarra dugula, eta edozein esfortzu txiki egindakoa, gaizki eta nekaturik senti-



tzen garea. Baina arazoa ez dago ondorio honetan soilik. Geldikortasuna hainbat gaitz sortzeko arrisku-faktorea bait da: arteroesklerosia, artrosia, osteoporosia... garrantzitsuenak aipatzea-gatik.

Grafikoan ikus daiteke infartuaren kopurua askoz

handiagoa dela aktibitate fisikoarekin kaloria gutxi erretzen dutenen artean. Antzera gertatzen da artrosiaren kasuan; hau juntura edo artikulazioen gaitz degeneratiboa dugu, jende asko ezintasunean jartzen duena, oinaze handiak sorterez.

Osteoporosia, hezurren dekalkifikazioa da, eta honengatik gerta litezke adineko pertsonen hainbat hezur-haustura; beste zergatia batzuk ere egon arren, zalan-tzarik gabe, geldikortasunaren ondorioa dugu hau ere, kaltzioaren galera errazten bait du.

Guzti honengatik, gaixotasun hauei aurre egiteko edo prebentzio gisa, eta forma fisiko onean egoteko, derrigorrezkoa da ariketa fisikoa egitea. Astirik ez dutela esaten dute askok, baina larregi balio ez duen aitzakia da. Asteaz zehar, eta benetan nahi izanez gero, nork ezin ditu hiru ordu horretarako atera?

*Eukeni eta Arantza*

LASTER IREKITZEKO

*Illarramendi*

erlojudenda-bitxidenda

Iturriotz 7 Bis, Tfnoa: 77 12 71 ARRASATE



# ARRASATE

# Lehiaketak

# 90

BERTSO  
PAPERAK

IPUINA

POESIA

Ipuina, poesia eta bertso-paperetan  
gazteentzako lehiaketa eta sari bereziak!

KOMIKIA

ARGAZKIA

BIDEOA

DIPTIKOAK ETA INFORMAZIOA:

AEDn, Pablo Uranga 4 etxebehea, Tfnoa: 79 54 46

*Animatu eta parte hartu!!!  
Sari garrantzitsuak*

Lanak aurkezteko epea: 1990ko azaroaren 1a.

AEDk antolatuta Arrasateko Udalaren laguntzaz





## Informatika eta eskola

**G**arai batean, ordenadoreak pelikuletan bakarrik ikusten genituen tresnak ziren. Gaur egun berriz, edonon aurkitzen ditugu eta eskolari ere bere txanda heldu zaiola esan liteke.

Duela bost bat urte Hezkuntza Saila ordenadoreak eskoletan banatzen hasi zen. Inbertsio handi samarrak egin ziren arlo honetan eta gaur egun esan liteke eskola gehientsuenek dituztela (gehiago edo gutxiago) halako tresnak.

Baina ordenadoreak eskoletan, zertarako? Hauxe zen irakasle gehienok geure buruari egiten genion galdera. Irakasleak ordezkatzeko ote? Hauxe gure beldurra.

Baina denboraren eta esperientziaren eraginez, gaur egun gauzak beste lasaitasun batekin ikusten ditugu. Gure hasierako beldur haiek suntsituz joan dira.

Baina zer erantzun eman zaio lehen galderari? Gehienetan honakoa: ordenadoreak "informatika" ikasteko balio dute. Eta eguneroko praktikak -salbuespenak, salbuespen- baiezatu egiten du esandakoa. Hain zuzen ere, eskola gehienetan "informatika" gaia lantzeko erabiltzen dira.

Agian, oraingoz, beharrezkoa da lehen urrats hau ematea. Gai berria denez eta nonbaitetik hasi behar dagoenez, hau izan liteke bidea urratzen hasteko abiapunturik errazena. Ez dugu

hori ukatuko. Baina "informatika" irakastea ez da, ene ustez, eskolaren eginkizuna, "arkitektura" irakastea ez den bezalaxe. Eskolak Oinarrizko Hezkuntza Orokorra (O.H.O) eskaini behar du. Espezializazioak beranduago etorriko dira, eta etxe-erakuntzan jardun nahi duenak arkitektura ikasi beharko du eta programatzaile izan nahi duenak informatika.

Eskolaren eginkizuna, beraz, ez litzateke "informatika" bera irakastea izango, baizik eta "informatikaz" baliatzen irakastea, beste hainbat arlotan aplikatu ahal izateko. Honek izan beharko luke eskolaren helburua.

Aitortu egin behar da, gero praktikara eramatea

oso zaila suertatzen dela. Arazo handiekin aurkituko gara bigarren urrats hau ematerakoan. Besteak beste, bi hauek aipatuko nituzke: bata, programa egokiren falta, zuzenean informatikarekin zerikusirik ez duten arloak landu ahal izateko.

Onartzen bada gorago aipatutako helburua eta gogoan hartzen badugu ordenadorea beste baliapide didaktiko garrantzitsua izan daitekeela, beharrezkoa da irakaslego osoa inplikatzeko prozesu honetan. Dena den, hau nekez lor daiteke eskoletako ordenadore kopurua ugaltzen ez den bitartean eta programa egokiak sortzen ez diren bitartean.

Klarion Taldea



**ZIMBAWETIK  
AFRIKAR MUSIKA**

**THE FOUR  
BROTHERS**

**Amaia Antzokian  
Urriak 20 Larunbata  
Gaueko 10.30etan**



ARRASATEKO  
UDALA




## Birginia Arriaran (dendaria)

**U**rtebete darama Birginiak Ford Fiestarekin eta egunero erabiltzen du, lanerako batez ere. Autoarekin oso prudentetzat dauka bere burua. Beti kalean edukitzen du garajerik ezean, eta garbi edukitzea gustatzen zaio, "baina beltza asko zikintzen da. Asko gustatzen zait kolore hori eta apropos aukeratu nuen". Arrasaten ongi ibil daiteke berebilerik, baina aparkatzea gero eta zailagoa da. Auto-stopean ezagun guztiak hartzen dituela dio, gaztetxoak batez ere.



**EUSKAL HERRI BERRIA**



*zure esku!!*

**eman botua**  
**HERRI BATASUNA****ri**



# Euskal Pirineoak bizikletan. 1990eko uda (III)

**3. Etapa**  
1990eko uz-tailaren 31, San Inazio eguna; Baigorri herri zoragarrian ginen. Gorputza sukarrak jota, baina aurrera egiteko prest. Guztira 46 km. egin genituen Baigorritik Auritzera (Burguete). Denbora: 3 ordu eta 56 minutu!. Baigorritik Donibane Garazira joan ginen eta hemendik Luzaidera (Valcarlos). Luzaide utzi eta Ibañetako aldapetatik gora, Orreaga (Roncesvalles). Bukatu Auritzen. Oraindik ezagutzen ez baduzue, zoazte egunen batean inguru zoragarri hau ezagutzera. Ibañeta aldean jende ugari ze-

goen; batzuk oinez trabesian eta beste batzuk Santiagorako bidean. Auritzeko kanpinean geratu ginen lo egitera.

**4. Etapa**  
Auritze - Irabia urtegia. Guztira 38 km, 3 ordu eta 54 minutu.  
Auritzetik berriro Orreagarantz hartu eta Ibañeta mendatea egin genuen. Eskumatara pista



hartu eta mendilepora heldutakoan bidea jarraitu genuen eta 500 - 600 metro tara eskumatara hartu eta dena beharantz Orbaizetako Olaraino. Hemendik, bidetik, Orbaizeta herrira jo genuen eta horra heldu baino lehenxago Irabiarako bidea hartu genuen. Zegoeneko Iratin

ginen, pago artean.

## 5. Etapa

Irabia urtegia - Zuriza; guztira 5 ordu eta 45 minutu; 66 km.

Irabia zeharkatu eta Iratiko Amabirjina dagoen tokira heldu ginen. Hemen sekulako aldapa igo behar izan genuen; iturri bat zeharkatu eta laster ezkerretara zihoan pista hartu genuen Joan eta joan, pago artean, Ollokiaraino, aduana; lekuraino. Ondoren, jaitsi bidetik eta Lazar mendatea igo, Uztarrotzetik pasa eta Izaban ginen. Gero, bukatzeko, Zurizara joatea erabaki genuen. Afari beroa zain genuen.

K. U.





## ARANBURU COTEMAR

**Garraio agentzia**



Zaldizpe 3, Tfnoak: 78 52 34 / 79 53 99 ARRASATE

## TXOMIN HERIZ

eraikuntzarako materialak

Biltegia: Bidekruzeta 1, Tfnoa: 79 23 18

# I R A T I

**Ferrerias kalea**  
**Tfnoa: 79 71 80**

## VICTOR RUIZ MELGAR

Pintorea

Erdiko kale 32, 4.

79 12 63 (9etatik 1etara eta 4etatik 8etara)

**ARRASATE**

## PAZI-OLA SA

Zaldizpe kalea 2,

Tfnoa 79 29 91


**ARRASATE**



AX NEW YORK

CITROEN BERRIA

**Ikusgarria da NEW YORK!**



Gainera, Citroën AX New York irrati-kaxetailu stereoz eta bozgorailuz hornitua dago, guztiz doan, eta 70.000 pta.tik 100.000ra arteko aurrezkiaz. Zatoz AX New York Citroen berria serie mugatua ikustera. Beteko dizu begia!

**AX NEW YORK Citroën berria. Serie mugatua.**

**1.090.000 pta.** Fabrikatzaileak gomendaturiko salneurria (F.F.+ BEZ. Garraioa ez dago sartuta)

ESKAINZA HONEK, PENINTSULA ETA BALEAR IRLETAN STOCK-EAN IBILGAILUEN ESKARIETARAKO BALIO DU. EZIN DAKIEKE GEHITU BESTE PROMOZIO-ESKAINZA BATZUEI.

BESTE MODELO BATZUK  
**150.000 pta.ko aurrezkoa**  
 Hil honetan, AX PREMIER modeloretan,  
 aurreko itzazu 150.000 pta.  
 daguen informazioa AX garmako generatzailetan  
 dagoen eskaintza apartaz



**CHAPIME Tailerrak** Araba Etorbidea, z/g telefonoak: 79 06 57/79 45 22 ARRASATE





**Aste gazte**

"Gizatalde guztiak susper daitezke gehiago eta hobeto, bai eta sustatu euren giza eta kultur maila gora dezaten..."

...Baina gazteria heldutasunera heltzeko ataria izanik -hauxe bait da giza bizitzaren zatirik luze eta arruntena-, gazteei ematen zaien bultzadak eragin erabakiorra izango du pertsona horien etorkizuneko bizitzaren kalitatean".

Jose M. Quintana  
(Pedagogo)

**Lana**

• Euskal Autonomi Elkar-  
teko Administrazioarako lan-  
postu-deialdia (lehiaketa-  
oposaketaren bidez). Eskabi-  
deak aurkezteko azken egu-  
na: urriaren 26a (E.H.A.A.  
201). Txanda libreko lanpos-  
tuak:

- Goimailako Administrazio-  
rako 41 lanpostu
- Zuzenbidean 39 lizentziatu
- Ekonomi Zientzian 22 li-  
zentziatu.
- Mendiko Injineru 1
- Industri 14 Injineru
- Bide, Ubide eta Portuetako  
2 Injineru
- 5 Arkitekto
- 13 Informatikari
- Informazio Zientzian 3  
lizentziatu
- Geologian 3 lizentziatu
- Zientzia Kimikotan 4 lizen-  
tziatu
- Euskal Filologian lizentzia-  
tu 1
- Goi mailako 9 Artxibari-  
Bibliotekari-Agirizain
- 7 Itzultzaile
- Medikuntzan 8 lizentziatu
- Biologi Zientzian 3 lizen-  
tziatu
- 3 Injineru Agronomo
- Mehatze Injineru 2
- Hizkuntz Normalkuntzara-  
ko 20 teknikari
- 25 Estatistikari
- Farmazian 13 lizentziatu
- Geografia eta Historian 3  
lizentziatu (2 Historia atalean  
eta 1 Arkeologian)

- Nautikan lizentziatu 1
- Administrazio Kudeaketarako  
diplomatu 1
- Erdimailako informatikari 1
- Obra Publikoetarako 5 Inji-  
neru Tekniko
- Turismo Diplomatu 1
- Erdimailako 4 Artxibari-  
Bibliotekari-Dokumentalista
- 4 Arkitekto tekniko
- Hizkuntz Normalkuntzara-  
ko erdimailako teknikari 1
- Gizarte Laguntzaile 1
- 10 O.T.L.-E.U.D.
- Erdimailako Estatistiko 1
- 6 Administralari
- 3 Delineante
- 2.mailako Lanbide Hezike-  
tako (Nekazaritzan) 4  
laguntzaile
- 260 Administralari Lagun-  
tzaile
- 89 Menpeko (subalerno)

**Bekak**

• Historia-Arkeologian  
Lizentziatuentzat ikasketak  
zabalduta edo ikertzeko 4 beka,  
Erromako Historia eta Arko-  
logiako Institutuan. Epea: 90-  
10-25 (B.O.E. 229)

• Edozein Eskola edo

Fakultate Teknikoan azkenu-  
rrenko ikasturtean matrikula-  
turik daudenentzat Ikerketa-  
bekak, beste edozein beka-  
ekin bateragarriak. Iraupena:  
10 hilabete. Dotazioa: hileko  
20.000 pta. Epea: 90-10-31  
(B.O.E. 218)

**Lehiaketak**

• Leioako IV. Diapositi-  
ba-Lehiaketa. Modalitatea:  
koloretan. Gai Librea. Sa-  
riak: 40.000, 25.000, 15.000  
eta diplomak. Lanak aurkez-  
teko epea: azaroaren 19ra  
arte.

• Sestaoko VIII. Pintura  
Lehiaketa-1990. Teknika li-  
brea. Sariak: 250.000 eta  
plaka eta 150.000 pezetako  
lau akzesit. Lanak aurkezte-  
ko epea: azaroaren 10era  
arte.

**Informazio gehiago:**

Gazte Zerbitzua,  
77 00 65

**"PAL"**  
burdindegia,  
brikolage  
eta tresneria

Urbarri etorbidea 3,  
Tfnoa: 79 31 99

Altzariak  
Diseinua  
Apainketa

**M**  
**ARENAZA**

Bizkai 1, Tfnoa: 79 08 07 ARETXABAETA

**F**  
KLN

Fotokopiat  
Enkuademazioak  
Planoen erreproduzioa  
Offseta

Ferrerias 23,  
ARRASATE Tfnoa: 79 46 62

ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI  
BADUZU EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK.....

HELBIDEA.....

HERRIA.....

Azoka kalea 1, -ARRASATE- Tfnoa: 77 08 15

**ARRASATE**  
**PRESS**

**77 05 65**



## ETXEBIZITZAK

- **Gutziz berriztatuko etxebizitza salgai.** 3 logela, egongela, jangela, hall-a, bainugela, hornitutako sukaldea, ganbara eta berotze sistema. Makatzena 15, 4 C. Tfnoa 79 49 49
- **Apartamentua alokatzen da** Laredon. Interesatuek 793147 tfnora deitu.
- **Alokatzeko etxebizitza bila** gabiltza. Dei egin 94-683 09 48 tfnora.
- **Etxebizitza saltzen dut San Andresen.** Zabala, ikuspegi onekin. 4 logela eta egongela, 2 bainugela eta jarritako sukaldea. Igogailua, berokuntza, antena parabolikoa eta hari musikalak. Interesatuek 79 51 09 tfnora deitu.
- **Hiru neska behar ditugu pisua osatzeko** Donostian. Tfnoak: 79 69 80 eta 79 50 28. 8etatik aurrera deitu.
- **Irakasle taldeak alokatzeko pisua** behar du Arrasaten edo inguruan (Aretxabaleta, Eskoriatza...). Tfnoa: 79 70 77. Aintzane edo Bego.
- **Donostiara ikastera** doazen hiru neskek beste neska ikasle batzuk behar dituzte elkarrekin bizi izateko. Deitu 79 50 45 Tfnoa. Mertzxe.
- **Lokala behar dugu alokairuan** (ez komertziala), bertan gure lana burutzeko. 50m<sup>2</sup> inguru. Berdin dio non eta nola dagoen. Tfnoak 79 21 09 eta 79 95 83.
- **Neska euskalduna behar dugu** Gasteizen pisua osatzeko. Tfnoa: 79 50 53.
- **Neska behar da** Donostian pisua osatzeko. Tfnoa: 21 90 80
- **Arrasaten, erdialdean lau urteko etxebizitza** berogailuaz salgai. Hiru logela, egongela, sukalde amueblatua, bi bainugela, ganbara. Garajea saltzea ere posiblea da. Tfnoa: 79 95 46

## LANA

- **Andra euskaldunak etxeko lanak** egin edo umeak zainduko lituzke. Tfnoa: 79 07 73
- **Gustora hartuko nituzke** estatistikako klase partikularrak. Emateko prest bazaude, deitu tfnoa: 79 51 47
- **Klase partikularrak ematen ditut.** Deitu 79 84 75era. Judit. Euskaraz edo erderaz emango ditut.
- **Neska gazteak etxeko lanak** eta umeak zainduko lituzke. Tfnoa: 79 15 56
- **Latin, greko eta euskarazko klaseak** ematen dira. Tfnoa: 79 50 88
- **Neska euskalduna behar da** Gasteizen ume txikia zaintzeko, urtariletik aurrera. Tfnoa: 945 - 22 62 22
- **IEE bigarren mailako fisika eta matematika** ikasketak ematen dira (injinerutzako hirugarren mailako ikaslea). Tfnoa: 88 25 71 (Ostiral gaba eta igandea bitartean)
- **Neska behar dugu** igandeetan lan egiteko, autoa beharko luke. Tfnoa: 79 47 85
- **Etxeko lanak orduka egingo duen pertsona** behar da. Tfnoa: 79 32 32 gaueko 10etan.

## SALEROSKETAK

- **Solarium-a eta estetika** aparailuak salgai. Tfnoa: 75 24 66 Esther.
- **Fotokopiagailua salgai.** Sark SF 7400 markakoa. Tfnoa: 76 62 68
- **Peugeot 205 GT salgai.** Bost urte eta 85.000 km., egoera onean. Deitu 77 08 95 tfnora. ilunkaran hobeto.
- **Peugeot bizikleta plegablea** egoera onean salgai. 8-10 urtekoentzat egokia Tfnoa: 79 32 61 Haritz.

- **Philips musika ekipoa salgai.** Dei egin 76 40 50 tfnora. (10.00-13.00 eta 17.00-20.000 bitartean) Fermin.
- **Perikito bikotea doan emateko prest nago,** biak batera hartuko lituzkeenari. Biak arrak dira eta gazteak. Bata horia eta bestea urdina. Tfnoa: 78 32 98
- **Telebistan irabazitako telebista salgai.** Oraindik kajatik ataratzeko dago. Prezio onean utziko dizugu. Sony Triniton. Tfnoa: 79 49 69
- **Kitarra akustikoa "Jazmine bytakamine"** salgai. Erabili gabe. 35.000 pta. Tfnoa: 79 23 97 Josu.

## DENETARIK

- **Frantsesetik itzulpenak** eta bestelako mekano-grafi lanak egiten ditut. Ana. Tfnoa 795676
- **Eraikitzeko lurra behar da** Arrasate, Aramaio edo Aretxabaleta inguruan. Deitu 792586 tfnora
- **Datorren ikasturtean Madrilera joan** beharra daukat ikastera. Pisua konpartitu nahi nuke. Zuen etxean tokirik badaukazue deitu lehenbailehen. Oihane. Tfnoa: 79 90 24 Aretxabaleta.
- **Astehelen goizean Donostiara joateko,** bi neska autoa duen norbaitekin elkartuko lirateke. Dei 79 13 83 Arrasate.
- **San Andreseko Goenatxori eta Iturriozko Pianojoleari.** Hurrengokuan, herri kirolak egin behar dabiltzue ere urten herriko plazara eta danon bistara egin. Ah! eta topau Musakola aldien zezentxoren bat desafixue egiteko Santamasetan.



## ARRASATEN HILDAKOAK



**Felix Zabaleta Uzaga**  
irailaren 8an. 75 urte.

**Jose Aguado Portalo**  
11an. 82 urte

**Pedro Arana Belar**  
12an. 78 urte.

**Laura Murillo Tena**  
14an. 69 urte.

## ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA: .....

.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....


Azoka kalea 1, 20.500 ARRASATE

Tfnoa: 77 08 15



# Zer nahiago?

## Luis Zabala "Gigi"



- Añiketan egitea ala gimnasia? Añiketan egitea.
- Korrika konpetizioa ala hobya? Konpetizioa gehiago.
- Zapatak ala zapatilak? Añiketarako zapatilak, baina biak.
- Urkulu ala kaminoa? Kaminoa.
- Maratoia ala lagun taldean korrika egitea? Maratoia.
- Txandala ala praka motzak? Gehiago, praka motxekin.
- Oinetakoak gazteenak ala nagusiarenak? Gazteenak, gazteekin hobeto konpontzen naiz.
- Oinetakoaren azpia, gomazkoa ala larruzkoa? Suelazkoak, larruzkoak.
- Neguko oinetakoak ala udakoak? Udakoak.
- Marka ala kalitate ona? Kalitatea beti.
- Txarolezkoak ala larruzkoak? Txarolik ez, Jaunartzeetarako bakarrik.
- Bezeroak emakumeak ala gizonezkoak? Uff, gizonezkoak. Emakumeak oso zailak dira, arazo gehiago izaten dituzte.
- Herri barruan ibiltzeko, autoz ala oinez? Beti oinez, autoz ez dakit ibiltzen.
- Irakurtzea ala telbista ikustea? Biak, baina telebista ez dut asko ikusten.
- Telebistan kirol programak ala pelikulak? Pelikulak. Kiroletan atletismoa bakarrik.
- Txuleta ala legatza? Txuleta, jakina, beti gainera.
- Ura ala Bilboko ura? Ura, baina gauean ez. Beste gauza bat da.
- Musean ala tutean? Tutean hobeto, musean ez dakit ondo.
- Txistek kontatzea ala entzutea? Kontatzea gurago.
- Oporrak etxean ala kanpoan? Kanpoan, oraintxe hasi naiz joaten.
- Kuba ala Euskadi? Kuba! Euskadi neure aberria delako, baina han beste mentalitate bat dago, sekulako harremanak egiten dira jendearekin.

# Zelebrequerixak

**M**utikotan diabrukerixa franko eiddakua zan gure Fernando. Behin, gau ilun baten, Paskaxio bere laguna eta bixak piku lapurretara joan zien auzoko ortu batera.

Paskaxio arbolara igo eta Fernando botatzen zotsan pikuak, honek otar baten batzeko. Fernandok otarrera baino ahora gehiago sartzen zittuen Paskaxiok botatzen. Halako baten, piku bat jaten ziharduala, karrask! hazurra topau eban mamin artian.

Fernandok, ziharo ikaratuta, prentau zotsan Paskaxioi:

- Hi, Paskaxio, pikuak bajaukak hazurrik?

- Pikuak hazurra? Burutik eidda hago, ala?

- Ene ba -jarraitu eban Fernandok larri eta estu-, orduan zapua jan juat.



**P**laentzia inguruan etzan kristaurik gaitzizenik bakorik. Asko eta asko ezaunagua zan gaitzizenez bere izenez baiño.

Fernandok hirugarren semia izan ebanian bautizatzen eruan eban eta abadiak prentau zotsan:

Eta zer izen ipiñi behar dotsazue?  
- Izena? Ipiñiko dotse bai, ipiñiko dotse.

*Juan Martin Elexpuru*

**Felipe**  
**Arrizabalaga**  
aroztegia



Legarre pabiloia Tfnoa: 79 22 76 ARRASATE

**MIREN**

**APAINDEGIA**

Zarugalde 23, 2. Ezk.  
Tfnoa: 79 96 90 ARRASATE






Goizeko Izarra

Iturripe, 1923

**B**izitza laburra izan zuen Mondragoeko **Goizeko Izarra** futbol taldeak. Zirkulu Tradizionalistaren barruan sortu zen. Kronikek diotenez, partidu ederrak jokatu zituen Iturripe zaharrean *Deportivo de Mondragon*, Eibarko *Alta Praka* eta abarren kontra. Iturripe zaharra oraingo EPPko Biteri

egoitza dagoen lekuan zegoen, **Uribar-zuri** baserriaren atzean, Genaro Balantzategiren lurretan. Aramaio ibaiaren parean zegoen ate bat eta *Gorriko* baserrira zihoan bide azpian bestea. *Gorrikora* bidean metaliturria zegoenez, hortik **Iturripe** izena. Futbol zelaiaren inaugurazioa 1923ko uztailaren 25ean egin zen, Santiago egunez. Alde batetik Real Union, Goizeko Izarraren Alberto Aranburuzabala eta Felix Alberdi jokalariekin, eta bestetik Bilboko Athletic.

Argazkian Goizeko Izarraren talde titularra. Zutik eskerretik hasita, *Victor Bastida*, *Juan Jose Etxabe*, *Dionisio Mendiaratx*, *Antonio Altube*, *Ramon Usatorre*, *Joaquin Atxa* eta *Jose Ramon Mendizabal*, arbitroa. Belauniko, orden berean, *Jose Galdos*, *Alberto Aranburuzabalak*, *Jose Madinabeitia*, *Felix Alberdi* eta *Franizisko Olabe*. Iturriperen errenta 500 pezetakoa zen, urtean.



**EGVZKIGRAF**

Grafikagintza. Tipografia. Offset industrialia

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal Inprimakiak
- Bulegoko materiala



# Hitz gezidunak

*		Zezen zikiratuak		Ur gainekoak		Gaude		Hutsa
*		Gogoko		Udako hilabetea				*
						Alfabetatze Euskaldun. Koordinak. Bokala		
Errenta ordaintzaile Bizk. Makal						Argi. hitz elkar. Nitrogenoa		
Zenbakia	Seigarren hilabetea *					Einstenioa		
			Kasik			Lizarraldeko ibaita		
			Miatu			Gabarra		
50		Auzapez						Ondoren
Arazoa		Etzanarazia						
					Gauero ohi dugu		Kontsonantea	
					Oholak		Har ezak	
Bizk. Iratze			Bitarte					
Ahulezia			Bat					
						Atzikia		
						Lutezioa		
*	Eta		Eki. Euli				Zero	
	Emakumezko gurasoak		Saiatu				*	
						Fosforoa		Moile
						N.A.N.		
Suerte ona						Gip. Duk		
Leku hartan						Alkoholen bukaera		
			Irudi sagaratu					
			Iodoa					
Abelen anaia					53			

Soluzioak

I	I	I	T	.	N	I	V	K	=
V	O	N	O	K	I	N	V	H	
K	E	D	E	K	V	U	V	M	
-	P	F	U	L	E	T	Z	V	G
O	I	L	I	V	T	V	.		
R	O	R	K	I	V	K	I	V	F
E	R	T	E	R	V	I	R	V	I
G	L	O	L	O	V	E	R	V	F
-	E	T	E	V	L	K	V	L	-
V	G	V	E	G	V	I	V	B	V
S	E	S	N	I	V	I	E	K	.
T	V	R	T	Z	V	T	Z	V	M
V	R	V	A	I	Z	T	E	R	V
K	E	K	A	E	N	D	U	N	Z
A	-	G	-	U	I	I	D	-	.

ENBIDOTik hartuta, ELKAR-en baimenarekin



- AIRE GIROTUA
- AIREZTAPENA
- BEROKUNTZA
- HOTZ INDUSTRIALA
- BERO INDUSTRIALA

Tfnoak: (943) 79 90 75 eta (945) 45 54 45- 46



## Salbuespenak salbu

**H**aize bolada izoztu bat nagusitu zen hitzaldi aretoaz Luziano jaunak, bere ospe eta eritziak emateko ahalmen ikaragarri osoaz, hitzaldiaren erdikaldera, honakoa esateko arnasa hartu zuenean: "Ohi dudanez, argi eta garbi mintzatuko natzaizue. Herri honetan, eta salbuespenak salbu, nere lanbidean jende salkor, ergel, noiz-nolako eta txoriburua besterik ez dago".

Hurrengo goizean, zortzietarako deitu zion idazkariak: "Luziano jauna, sentitzen dut hain goiz buruhausteak ematen hastea, baina oraintxe bertan pasa didate abisua, zure etxe aurrean bost ehun bat pertsona daukazula zain". "Ah, bai?" irakasle jaunak, gogo onez. "Eta zer nahi dute, ba?". "Zorion agurra eman eta euren mirespina adierazi nahi omen dizute.". "Baina zein dira?". "Ez dakit seguru, Luziano jauna. Eurek salbuespenak direla diote".

Mario Benedetti,  
*Despistes y franquezas, Alfaguara 1990*  
 Itzulpena: J.I.

 **MIKEL LASA**  
 ASEGURU ARTEKARITZA

**ASEGURU  
 ARTEKARIA**  
 Zure esanetara gauzkaku!

Maalako Errabala 33, Etxabea. Tfnoa: 79 69 00. Fax: 79 69 43 ARRASATE



✓ **ESTATU BATUETAKO TELEBERRIAK.** Astebetez Estatu Batuetako informazio saioak berriro ikusteko aukera izan dut hango telebista katea nagusietan. Desberdinak dira eta jarraian esango dut zertan.

Aurkezleek modu entretenigarriagoan aurkezten dituzte albisteak, noiz edo noiz euren arteko irazkin umoretsu edo bestelakoak sartuz.

Albisteak askoz era dinamikoagoan ematen dira, kamaren lanari esker batipat. Erreportariak askotan agertzen dira albistearen barruan, eta berriaren amaieran sinatu egiten dute, hau da, izena eta abizena esaten dute, grabatzen ari diren tokienarekin batera.

Publizitate ugari tartekatzen da teleberri amerikarretan. Bi minutuko bost etenaldi albistegian zehar ez da harriztekoa.

Egia da hala ere, desberdintasun hauen gainetik, haien eta gure arteko albistegiek geroz eta antz handiagoa dutela, normalean geureak haien eruedetara makurtzen direlako. Ez litzateke zaila izan behar, bada, datorren urteotan zer etorriko zaigun informatibo mailan asmatzea.

✓ **AMMESTY INTERNATIONAL-EN JAIALDIA.** Santiago de Txilen egin zen jaialdiaren zati bat baino ez nuen ikusi, Winton Marsalys eta Jackson Bownen ekitaldiei zegozkienak.

Ez dakit oso jazzale izango ziren estadioan bildutakoak, baina giroa apartekoa izan zen. Elkarrizketatu guztiek adierazi zuten bezala, badago itxaropenerako arrazoirik.

Esan dezadan, bidenabar, Peter Gabrielen hitzak itzuli zituen itzultzaileak lan kaskarra egin zuela benetan, gaizki itzuliz batzuetan eta esanda-koak aipatu barik besteetan.

✓ **ASTEBURUETAKO GAUR EGUN-A.** Itxuraldatuta topatu dut asteburuetakoa Gaur Eguna, ETB1en albiste saioa. Astebete t'erdian neraman ikusi barik eta hara non ikusten dudana guztiz aldatuta. Izenburu eta plato berriztuak, letra tipo desberdinak, kolore diferenteak... Askoz ere itxura hobea hartu nion.

Hauteskuendeei eskaintako tartean beste inoiz hitz egingo dugu. Oraingoz egunero horrelako erretolikak ikusi beharra astuna izan daitekeela esan baino ez.

*Joxe Aranzabal*

## Gusto baduzu

### ☐ BIHARTIK AURRERA

Dokumental sorta eskainiko digu ETBk izenburu horrekin Narkoen kontrako borrokan arma bezala erabiltzen den robot, energia nuklearra, Japonen espazioko planen berri, Ferrari etxearen autorik azkarraren eta antisorketa sistema berrien bila egiten ari diren lan ikusiko ditugu, besteak beste. Igandean 20.30etan.

### ☐ KANE ETA ABEL

Telesail berria iragartzen zaigu. Botere, mendeku eta pasio istorioa da, Estatu Batuetan 1902-1967 bitartean kokatua. I. Mundu Gerratea, bi mundu ezberdinetan hazitako pertsona biren bizitza agertuko dira, gure pantailan, hala aukeraturaz gero, larunbatetan 22.15 etan.

### ☐ BILIN BOLONKA

Haurrentzat programazio berezi berriari ekin dio ETBk. Iñigo Zubizarreta azkoitiarra egunero izango da, pantailan umeentzat programa atsegina aurkeztuz. Arratsaldeko 6etan, astegunetan.

## Bideoak

### PITIREN ABENTURAK 2

Bigarren zenbaki honetan gaztagile, ezigile eta ogigileak aztertuko dira eta ez da besterik gabe ikusteko bideoa; ikasgelan ekintzak sortarazi nahi ditu.

## Ostadar irratia

### OSTIRALA

3.30 eta 8.30. **Errota-zahar** (Ipuinak)

4 eta 8.30. **Batutakin** (Musika klasikoa)


### ASTEAZKENA

4 eta 8. **Xiru-liru-li** (Haur kantak)


### OSTEGUNA

1 eta 8. **Irratia-gelan** (Gelako grabakletak)

OSTADAR Irratia. 102 FM








**S** inestezina bazirudien arren, egia zen. DVren Mondragoeko kronikan ATBren programazioaren berri ikusi duzue, hilabetean zehar. Arrazoia? Berriemaile titularra oportetan zegoela eta haren ordez **Josebi Ramos** ibili zela. Oporrak bukatu direnean ostera, lehengo lepotik gure lagun titularrak. Iraun duen bitartean, polita izan da.



**A** TBk utzitako irudiak" agertu zen Euskal Telebistaren pantailetan, Mondragoeko azken udal pleno istilutsuaren irudiak agertzen ziren bitartean. Arrasatera etorri, eta irudirik ez zuten, ATBri eskatu, jatorria aipatzearen truke. Beste batzuetan alderantziz izan da, eta denok pozik.



**U** rriaren 28a bozketa eguna da eta ATBk programa berezia antolatu du egun horretarako. Gauko 10.00etan, eta ordubetez, **Koldo Rodriguez** eta **Bogoña Garaik** Arrasateko emaitzen berri ematea gain, politikari eta aditu zenbait elkarrizketatuko dituzte. Bozketa egunaren gorabeherak zuen pantailetan. On egin!

asteke

## PROGRAMAZIOA

### 22 ASTELEHENA

19.00 **Teletestua**: era guztietako informazio eta oharrekin.  
20.00 **Berriak** Koldo Rodriguezek aurkeztua.  
20.20 **Mondrasport** Beñardo Kortabariak aurkeztua.  
20.50 **Erreportaia** Almen, 25 urteko historia.  
**Berriak** (errepikaldia)

### 23 ASTEARTEA

11.00 **Teletestua**  
12.00 **Berriak** (bezperakoa).  
12.20 **Mondrasport** (bezperakoa)  
12.50 **Erreportaia** (bezperakoa).

### 24 ASTEAZKENA

19.00 **Teletestua**.  
20.00 **Berriak**, Koldo Rodriguezek aurkeztua.  
20.20 **Zenbat buru, hainbat aburu** mahaingurua. Jose Mari Velez de Mendizabalek aurkeztua. Gaia: Hauteskunde sindikalak.  
**Berriak** (errepikaldia).

### 25 OSTEGUNA

11.00 **Teletestua**  
12.00 **Berriak** (bezperakoa)  
12.20 **Zenbat buru, hainbat aburu** (bezperakoa).

### 26 OSTIRALA

19.00 **Teletestua**  
20.00 **Berriak** Begoña Garaik aurkeztua.  
20.20 **Erretratoa**, J.R. Elortzak zuzendua. Gonbidatua: Joxe Etxagibel Monte tabernakoa.  
20.50 **Musikantoi**: Asier, Patxi, Mikel eta Pepek egina. Rock musikaren saltsa eta piperra.  
21.30 **Berriak** (errepikaldia).

### 27 LARUNBATA

11.00 **Teletestua**  
12.00 **Berriak** (bezperakoa)  
12.20 **Erretratoa** (bezperakoa)  
12.50 **Musikantoi** (bezperakoa).

### 28 IGANDEA

22.00 Programa berezia: **Hauteskundeak** Arrasateko emaitzak, analisiak eta elkarrizketak, egunari buruzko erreportaiekin batera.



OBRAK DIRELA ETA, ERDIKO KALEAN GAUDE

*Mondragonesa Grafikagintza*

Paperdenda. Mahaigaineko tresnak

Olarte 10, Tfnoa: 79 12 63

**MIKEL**

Eskaiola, pintura eta kortxozko apainketa


Tfnoak: 77 12 88 eta 77 12 75  
ARRASATE





**ARIES**  
 Martxoaren 21etik  
 Apirilaren 20ra

Egun onak eta txarrak izango dituzu aste honetan. Zenbaitetan arazoak konponduta daudela uste izango baduzu ere, ez da horrela izango, Saturnok eragozpenak jartzen jarraitzen duelako; alimo, aurki bukatuko da eta.



**LEO**  
 Uztailaren 23tik  
 Abuztuaren 23ra

Ez zara batere pozik egongo zauden egoeran; dena dela, izan zaitez eraginkorra lanean pozen bat izango duzu eta. Zaindu itzazu hitzak, ez esan harira ez datorrenik. Bitaminak behar beharrezkoak izango dira nekeari eusteko.



**SAGITARIUS**  
 Azaroaren 23tik  
 Abenduaren 21era

Inguruan zorarena baino ez duzu somatuko. Ez zaitez egoera horren partaide izan zu ere. Atera hori jasateko kemena. Barne lasaitasuna lortzen saiatu eta arazoak ere hobean ikusiko dituzu.



**TAURUS**  
 Apirilaren 21etik  
 Maiatzaren 20ra

Alperrikakoa izango da zauden egoeraren zergatia bilatu nahi izatea, eziozu hainbeste buelta eman eta ulertzen baino ez zaitez saiatu. Zure ingurua ahulegia izango da laguntzarako, ez espero ezer beraiengandik.




**VIRGO**  
 Abuztuaren 24etik  
 Irailaren 23ra

Mundua hankaz gora dagoela irudituko zaizu, baina daukazun desorekaren ondorioz sortutako irudimena biano ez da izango. Zentzuz jokatzen saitu. Datorrena datorrela ere, zeure onena emaitu. Besteren eritziak benetan hartzea auldadea da.




**CAPRICORN**  
 Abenduaren 22tik  
 Urtarrilaren 20ra

Ez ibili burruka batean ez zeurekin ezta bestekin ere. Lur jota eta desorekatuta egoteko joera nabaritzen da, ez zaitzala harrapa egoera horrek. Besteren hobe beharrez ari zarelakoan bazaude ere, ez ibili denei kontra egin nahian.



**GEMINI**  
 Majatzaren 21etik  
 Ekainaren 20ra

Lur jota egoteko joera izango duzu aste honetan, lehen bizimodua pozen zizuna ere gaizki hartuko duzu. Arazoarik handienak besteekiko harremanetan izango dituzu. Saiatu besteak ulertzen.



**LIBRA**  
 Irailaren 24etik  
 Urriaren 23ra

Zure egoera emozionala ez dago onenean. Zuhur jokatzea dagokionean isilik egonez eta eraginkorra izatea desoreka horretatik alde egiteko medioak izan litezke. Besteak zeure erara erabili nahi izatea alperrikakoa izango da.



**AQUARIUS**  
 Urtarrilaren 21etik  
 Otsailaren 19ra

Pasioak pozgamiak izaten dira, baina ondorioak oso gogorrak beti ere; ez ibili hain itsu beraz. Badi-rudi egoera laboralak hobetzeko joera hartu duela. Maitasuna nabaritu duzu, zauden tokian zaudela ere, gustora sENituko zara horregatik.



**CANCER**  
 Ekainaren 22tik  
 Uztailaren 22ra

Zeurekin baino gehiago arduratuko zara besteekin. Hori oso ondo dago, baina zeuk ere merezi duzu hainbesteko arreta. Zeure Umorearen jabe egin zaitez lan arloan lagungarri izango da eta. Arazoak izango dira laguna eta bion artean.



**SCORPIO**  
 Urriaren 24etik  
 Azaroaren 22ra

Intuzioa inguruan dagoen giro txarra jasan araziko dizu, ideia positiboak azalduz baretu ezazu beraz. Bizimodua ondo doakizu eta inguruaren alde egizu. Lagundu besteekin ahal duzun neurrian. Osa-un aldetik arazoren bat suerta liteke; zaindu.



**PISCIS**  
 Otsailaren 20tik  
 Martxoaren 20ra

Etorkizunari begira edozein erabaki hartzeko moduan izango zara, ez bait zara eskaintza faltan izango; baina argi, hau egoera laboralari dagokionez bakarrik ikusten bait da. Ez utzi inori zure erbaketan parte hartzen.



## ARRASATEKO UDALA

Udal honek, meritu-lehiaketa sistemaren bidez, Administrazio Lokal, Foru edo Autonomoko langilegoari mugaturik, honako lanpostu hau bete nahi du:

### OBRA ETA HIRIGINTZAKO TEKNIKARIA

*(Obra Publikoetako Arkitekto Teknikari edo Injeneru Teknikaria)*

Deialdea araupetzen duten oinarriak Arrasateko Udaletxean jaso daitezke, eta urriaren 15eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu dira.

Eskaerak aurkezteko epea azaroaren 2an amaituko da.

**ELEKTRONIKA  
 ARTIKULUEN  
 SALMENTA**

J. Carlos Guerra 1, Tfnoa: 79 91 64



**URRATS**

**AHOLKULARITZA**

CARIBAI 3,  
 Tfnoa: 79 87 74

ARRASATE



# GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA ZURE ZERBITZURAKO



Gipuzkoako Foru Aldundia



# EMAN BOTUA PNV-RI



Aurrerabidezko Euskadiren eraikuntza  
euskotar guztion ardura da.

Gure ekonomiaren eta kulturaren garapena, guztiontzat  
ongi izatea nagusi izango den Euskadiren eraikuntza:

hauxe dugu gure etorkizunerako erronka.

Horrela, Eusko Legebiltzarretik eta Eusko Jaurlaritzatik,

EAJ-PNV-k et Jose Antonio Ardantza

Lehendakariak orain arte bezala lanean tinko

eta sendo jarraituko dute.

Denon artean, gure gizartea Europan dagokigun

egitekoa betetzeko modukoa egingo dugu.

Geurea Euskadi delako.



GUREA EUSKADI DELAKO